

# elkar

UDAZKENA 2023
73. ZENBAKIA

www.elkar.eus

## ALEX TXIKON

*Manaslu neguan,*
igoera historiko baten kontakizun kitzikagarria

+

## ÁNGELA BANZAS

*La sombra de la rosa*, un misterio que engancha

## MARÍA ORUÑA

*Los inocentes*, sexta entrega de los libros de Puerto Escondido

## IZEN PROPIOAK:

Xabier Mendiguren · Nora Zubillaga · Begoña Elorrieta · Aitor Ibarrola-Armendariz · José Dueso
Jasone Osoro · Urko Mantzizidor · Irati Jimenez · Antton Olariaga · Axpi · Manu López Giseni · Jon Urzelai

8435226190723

# IRRIA

**Urtean 10 zenbaki**
etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

## ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak




Egin IRRIAren harpidetza, eta baliatu gure eskaitza berezia: **10 €-ko bonoa** Elkar dendetan erabiltzeko




URTEKO
49€
HARPIDETZA

## NON EGIN HARPIDETZA?

- Elkar dendetan
- Katxiporretaren ikuskizunetan
- (0034) 943-30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus orrian
- www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian

berria elkar Katxiporreta IRRIEN LAGUNAK www.irrienlagunak.eus




AXPI




Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
elkar_taldea
postdata.elkar.eus
flickr elkartaldea
elkarTaldea

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad de Uribe 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33

LAS MEJORES AGENDAS DE TUS *TALENTS* FAVORITOS

TANTANFAN






# ALEX TXIKON

**Alex Txikon alpinista bizkaitarrak Himalaiako negua dastatu du berriz, arrakastaz beterik. Urte berriaren hasierako egunetan, Manaslu handia zapaldu zuen, negurik gorrieneko parametroetan. Etxeko epeletara bueltaturik, tarte bat hartu du *Manaslu Neguan* izeneko lan berria izkiriatzeko eta mendiarekin duen pasio neurribakoa deskribatzeko, batzuetan gordin, batzuetan xamur.**

**Manaslu izendatzeko beste modu bat Kutang da, eta inon Kuntangeko izpirituak aipatu dituzu. Uste duzu bertako izpirituak lagun izan zenituela aurtengo urtarrilaren 6an, gailurrera heldu zinenean?**
Oso kontu filosofikoa izango litzateke hori. Nik esango nuke lanaren ordaina izan dela, ez bakarrik hiru urteetako lanaren ordaina, batik bat sei-zazpi urteetako lan gogorraren ondorioa izan dela. Hiru hilabete pasa ditugu etxetik kanpo, eta aurten eduki dugu beste inoiz galdutako zortea. Esango nuke oso ondo konektatu dugula bertako herritarrekin, eta konektatu egin dugula mendiarekin, eta, nolabait, sentitu dugu aurten izango zela urtea.

**Zer dela eta erabaki zenuen Manaslu mendia neguan igo behar zenuela?**
Akatsetatik ikasi dugu 2016ko Nanga Parbatetik hona, eta Manaslu zapaldu ostean, nik aipatuko nuke aurreko urteetako esperientziak, Everesten eta K2an egindakoak, oso baliotsuak izan direla. Baina Manaslu mendi berezia da, Tibetetik hurbil dagoen bailara batean dago, bertako bizilagunak tibeteraz mintzatzen dira, eta mendi bera ere, nolabait, gozoagoa da niretzat.

**Zer topatuko du liburu honetara hurbilduko den irakurleak?**
Hiru urteetan gauzatutako azken esperientziak bildu ditut, era naturalean kontatuta, gertu-gertutik. Mendiko errelato bat da, non nire bizipenik ederrenak eta gogorrenak agertzen diren, eta nik uste dut irakurleak gozatu egingo duela. Gainera, tartean ere argazki ikusgarriekin horniturik etorriko da narrazio hori, eta horrek bestelako ikusgarritasuna ematen dio lanari. Bloketan agertzen da kontakizuna, eta uste dut oso modu originala dela. Hasiera eta amaiera oso desberdinak dira.

**Urteetako bizipenak zehatzen dituzu lerro artean. Parbat erraldoian egindako neguko igoera harekin erkaturik, zer konparazio egingo zenuke?**
2016ko Nanga Parbatekin alderatuz gero, hura oso igoera gogorra izan zela esango nuke, arriskatu genuela pilo bat, baina aurten Manasluko baldintzak askoz ere gogorragoak izan dira gailurraren egunean. Bi igoerek ez daukate zerikusirik forma edota taldearen aldetik. Aurten taldea oso sendoa zen, baina estiloari begira Nangan soka finkoz joan ginen gora, aseguraturik, eta Manaslun sokarik gabe joan gara, segurtasun hori gabe. Estiloa, orduan, nire ustez, askoz aberasgarriagoa izan da Manaslukoa. Baina kuriosoa da zelan nepaldarrekin egindako igoera honek garrantzi gutxiago daukan. Niri arraro egiten zait.

**Liburuan xehetasun guztiak aletzen saiatu zara. Gordin batzuetan, samur beste batzuetan. Zein gordin, zein samur?**
Xehetasun asko komentatzen ditut eta guztiak etortzen zaizkidan bezala kontatu ditut. Izan ere, zure sentimenduen eta emozioen barruan sartzen zara gauzak deskribatzeko garaian. Mendian kontrakoa egiten dugu. Gorako saioetan emozioak alde batera uzten dituzu. Aldiz, kontatzeko orduan kontrako norabide hartzen dugu, hau da, zure emozioetatik eta baitako sentimenduetatik abiatu behar zara idazteko. Orduan, dena dago ia filtrorik gabe. Baina beti saiatzen naiz gauzak ahal

**MANASLU NEGUAN**
Alex Txikon
SUA EDIZIOAK




denik eta txukunen egiten. Era berean, lan hau ez dugu egiten inori atsegin emateko, lan hau eginda dago errealitate eta gertakizun batetik abiaturik. Hortaz tartean kontu gogorrak agertzen dira, baina baita, hein berean, elementu samurragoak ere.

**Lehen atalean gailurrera iritsi zineneko kontakizuna dator. Ez dago inolako epikarik eta gauza arrunta balitz bezala tratatzen duzu.**
Bai, liburua bukaeratik gertu hasten da. Horrela bizi izan dugu. Gailurra bidea baino ez da. Gogoratzen dut 2016an, Nanga Parbaten, salbaziotik punturik urrutienean nengoenean. Benetako bizitzan baino, beste planeta batean zaude, eta hori oso gogorra da emozioen aldetik, psikologikoki kudeatzeko. Beraz, ez diozu inolako epikarik ematen. Bertan zaude, heltzen zara eta ez dago beste inor coca-cola bat emateko. Zeozer pertsonala da, prozesuarekin gozatu egiten duzu. Tontorrean sentituriko emozioren bat deskribatu beharko

## Manaslu invernal




El próximo mes de octubre llegará a las librerías *Manaslu invernal*, el libro en el que **Alex Txikon** repasa sus tres expediciones al célebre ochomil del Himalaya. Se trata del relato de su lucha constante contra la nieve copiosa y el frío extremo, una batalla contra la frustración y el sufrimiento, pero también un canto a la amistad y el trabajo en equipo.

El pasado 6 de enero, el alpinista de Lemoa, junto a seis nepalíes, ganó la cima de Manaslu en una ascensión que ya forma parte de la historia del himalayismo. Sin embargo, este libro insiste en una idea que a menudo puede pasar desapercibida: la verdadera cima es el camino, el trabajo que realizamos y las personas que conocemos en nuestro intento por llegar al objetivo.

Aderezado de grandes fotografías, este libro nos traslada a la cordillera más alta del mundo para acompañar a **Alex Txikon** ladera arriba, camino del próximo collado.


ARGAZKIAK: ALEX TXIKON ETA SENDOA ELEJALDE

banu, ez nuke esango poza denik. Bazen hil ala biziko momentu bat. Neuk hartutako erabaki baten ondorioz, ate batzuk zabaldu egin ziren, eta zorionez ondo irten zitzaigun, odol hotza izan genuelako, eta behar bezalako esperientzia eta prestaketa izan genituelako. Baina, nire ustez, epikarik ez dago hor. Heriotzetik gertu zauden une horietan ez da epikarik.

**Hotza, hotza eta hotza, hori transmititu nahi izan duzu…**

Ez dakit hori transmititu nahi izan dudan, baina hotzaz gain sufrimendua eta lana badaude. Hortzak estutu, hori bai. Hemen ez dago saririk esfortzurik gabe. Agian hotza izan daiteke deigarriena, noski! Baina Manaslu mendiak ez du zerikusirik neguan eta udazkenean, jendez gainezka egon ohi delako. Neguan Manaslu guztiz ezberdin topatzen duzu. Hau da, gorputz berdina dauka, baina eraldatu egiten da. Irribarre egin ahal dizu edo bere biolentziarik gogorrena erakutsi ahal dizu.

**Lanaren azken orrialdeetan ondorioak jarri dituzu, lana argigarriago gerta dadin.**

Bai, azken orrialdeetan arrakastak zeintzuk izan diren aipatzen ditut. Hor lanaren biribiltasuna aipatu nahi izan dut. Konklusioak dira, eta horietara heldu gara espediziotik bueltan. Mendizale bezala guztiz errealizatuta sentitzen naiz baina kirolari bezala ez. Sei urteetan ez dugu gailurrik zapaldu, eta helburua batzuetan ez dugu bete, baina hor dago koxka: lortutakoan hutsik sentitzen zara barrutik. Orduan, hor, estrategiari dagokionez, baina sentimenduei dagokienez ere, aipamen bat egin nahi izan dut.

**Mendizale-idazle bilakatu zara. Zerk bultzatu zaitu?**

Lehengo eta behin, sare sozialak aipatu behar dira. Hor elefante baten moduan sentitzen naiz. Baina lan horri orduak dedikatuz gero, konturatu egiten zara oso gauza aberasgarriak daudela. Liburua euskaraz, italieraz, bulgarieraz ikusteak poza ematen dizu, eta hango herrietan jendea etortzen zaizu liburua erosita, irakurrita, nik sinatzeko, eta horrek asko motibatzen nau. Eta nik badakit jende horrengana emozioen bidez heldu naizela. Horri eskainitako denbora jendeak eskertu egiten du. Aportazio xume bat egiten dut. Baina beti ere, gure aurrean egon ziren horiek egin zutena ahaztu barik, eta era berean ibilbide berari jarraituz.

**JUANRA MADARIAGA**
Kazetaria





Proposamena

**BEGOÑA ELORRIETA**
Escritora

# LA FAMILIA ES UNA TRAMPA

*La familia es una trampa*. Cuando escuché esta frase por primera vez, yo era muy joven, me impactó. Sin embargo en *Delatora*, de **Joyce Carol Oates**, se entiende en toda su dimensión. Desde la primera frase, *Desaparece. Vete al infierno, ¡chivata!, ¡delatora!*, se siente la necesidad de arropar a Violet, aun con el convencimiento de que lo impedirá. Una Violet adulta relata su infancia dichosa como la preferida de un padre violento y una madre anulada. Los sentimientos florecen desde las primeras palabras: el amor incondicional, el maltrato disfrazado de afecto, la idealización de la familia, la lealtad al grupo por encima de todo. La premisa es inquietante: la traición involuntaria de Violet es más grave que el asesinato perpetrado por sus hermanos.

La escritora no da tregua: la manera de enlazar las opiniones y pensamientos de los protagonistas nos obliga a posicionarnos. ¿Qué haríamos en su lugar? ¿Justificaríamos sin fisuras cualquier conducta? ¿Deformaríamos la realidad para que el culpable sea *el otro*, con tal de mantener la ilusión de *familia feliz*? Por otro lado, a veces de manera cruel, retrata el poder del clan. Sus relaciones emponzoñadas influyen en Violet hasta el punto de interiorizar el repudio como *su culpa*. Desde el mismo instante de su destierro involuntario, deja de existir. Su necesidad de ellos es tan grande que, en cada una de sus desgracias, encuentra motivos para implorar una migaja de afecto: una llamada telefónica, una postal… Alguna señal de que la recuerdan.

La forma de escribir de **Joyce Carol Oates**, es llana, directa. Carece de eufemismos y puede resultar hostil para alguien demasiado sensible. Aun así, engancha porque, siendo ficción, describe sucesos reales y deja en el aire la pregunta ¿Romperíamos con nuestra familia si la relación fuese tóxica?




**DELATORA**
Joyce Carol Oates
ALFAGUARA

Profila TONI MORRISON

# CRUDEZA Y LIRISMO A DOSIS IGUALES



**AITOR IBARROLA-ARMENDARIZ**
Universidad de Deusto, Bilbao

La autora canadiense **Margaret Atwood**, en la reseña que escribió para el New York Times de la novela cumbre de **Morrison**, *Beloved* (1987), afirmaba lo siguiente: “La versatilidad de la Sra. Morrison y sus dotes técnicas y emocionales parecen no tener límites. Si aún quedaba alguna duda sobre su lugar destacado en la literatura de su país, […], *Beloved* pone las cosas en su sitio”. En efecto, han sido incontables los escritores y críticos que han expresado su admiración por las novelas de **Morrison**, no sólo por captar con precisión y crudeza las realidades históricas y culturales del pueblo afroamericano, sino también por hacerlo a través de una prosa que seduce a sus lectores por su musicalidad y sutileza.

Sin duda, buena parte del poder cautivador de la narrativa de **Morrison** proviene del legado de cuentos folclóricos, canciones y relatos de fantasmas que escuchó de sus padres y conocidos a muy temprana edad. Si a esto unimos que siempre fue una ávida lectora de autores clásicos como **Tolstoi**, **Austen** y **Twain**, es más fácil entender su increíble dominio de la lengua –en especial la de los afroamericanos– y su destreza para experimentar con nuevas formas narrativas. Novelas como *Ojos azules* (1970), *Jazz* (1992) y *Volver* (2012) ofrecen claros ejemplos del “poder visionario y el lenguaje poético” que los jurados del Premio Nobel –que ganó en 1993– alabaron en su obra.


FOTOGRAFÍA: WEST POINT

Además de hacerse acreedora de los premios literarios más importantes de su país, desde el Pulitzer hasta el National Book Award, Morrison ha transformado la visión que se tenía de la literatura estadounidense en todos los rincones del planeta. Sus obras conjugan todo el dolor y el sufrimiento experimentado por su gente a lo largo de la historia con una inusitada capacidad de resistencia y resiliencia ante la adversidad.

BARREN-BARRENEAN



# PRIBILEGIOAK, KONPROMISOAK, EREDUAK

**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Beharbada benetako intelektualak falta direlako, idazleok sarriegi hitz egiten dugu intelektualak bagina bezala. Egia esan, ez dakit zergatik izan beharko lukeen inork pentsamenduz jantzia ipuin batzuk ganoraz idazteko, poema eder batzuk osatzeko edo nobela txukunen bat egiteko, baina hain gaude konbentzituta ondo idaztearen eta ondo pentsatzearen arteko harremanaz, idazle apenas trebatuari ere eskaintzen zaiola bere ideiei buruz hitz egiteko aukera, pulpitua ez esatearren.

Tamalez, esan beharko dut. Izan ere, gurean ez dira egon gauza inportanteei buruz modu noblean eta onean pentsatzeko gai izan diren intelektualak. Salbuespen aipagarriena, jakina, **Joxe Azurmendi** litzateke. Galdera guztiak onartu dituen intelektuala eta pentsatzen irakatsi digun kolosoa. Hain da handia pentsamenduaren alorrean egin duena ahaztu egiten zaigula Azurmendik idatzi zuela *Hitz berdeak* (1971, EFA) eta ezinbesteko poemario horretan daudela joan den mendean idatzi ziren euskarazko poema ederrenetako batzuk, besteak beste, *Nire lurra, nire anaiak, nire ametsak*, bereen artean nire bihotzetik hurbilenekoa.

Baina kendu **Azurmendi** eta Azurmendik maisutzat duen **Txillardegi**, eta gutxi dira gure artean intelektualak dei genitzakeen idazleak. Eta, hala ere, norberak bere iritziak bezainbeste balio balu bezala jokatzen duen gizarte honetan, idazleok prestu agertzen gara geure ideiak han eta hemen haizatzeko. Horixe gertatzen da pribilegioekin, nekez egiten zaiela uko. Konpromisoekin, aldiz, kontrakoa pasatzen da, eta idazleok gehiegi erabili dugu libertate artistiko gaizki ulertuaren iruzurra inolako ardurarik ez onartzeko. Izan ere, zintzotasunez erabili denean, askatasun artistikoak beti esan nahi izan du arteak ezin diola men egin artistaren kontzientziarena ez den beste autoritate bati eta ez artistak ezin duela gizartearen aurrean inolako konpromisorik hartu. **Gabriel Garcia Marquez**entzat ondo idaztea zen idazlearen konpromiso fundamentala. **Gabriel Aresti**rentzat, gezurrik ez esatea.

Konpromiso asko hartu ditzake idazleak. Beste idazle batzuren kontra gaizki ez esaka ibiltzea, irakurleei gustatzen zaizkien liburuak ez gutxiestea edo idazle hasiberriei animoak ematea, adibidez. Izan ere, idazle batzuek idatzi egiten diete beste batzuei haien liburuak gustatzen zaizkienean, ordurako ezaguna zen **Cortazar**rek **Carlos Fuentes** hasiberriarekin egin zuen moduan. Edo **Stevenson**ek, hil hurren zegoela, **Yeats** poeta gazte eta orduan ezezagunarekin. Nik kontatu dut inoiz nola, ezagutzen ez nituenean, idatzi egin zidaten **Julen Gabiriak**, **Asier Serranok** eta **Yolanda Arrietak**. Ezin liburu ederragoak idatzi dituzten gizon eta emakumeak, bide batez esanda. Nire faboritoen artean **Arrieta**ren *Aho bete amets: Ahozko haur poesiaren alde* saiakera estonagarria (Denonartean, 2016), **Gabiria**ren *Connemara gure bihotzetan* (Elkar, 2000), betiko askoren bihotzean geratu den eleberri fenomenala, eta **Serrano**ren *Hiri gorritik* poemario zoragarria (Elkar, 2010).

Zer esan nahi dudan guzti honekin? Esan nahi dut maiatzean galdu genuela **Joan Mari Irigoien**, gizon zinez noble eta maitagarri bat eta eredutzat hartu genezakeen idazle eredugarri bat. Nik ez ditut inoiz ahaztuko *Babilonia*ren (Elkar, 2022) hitzaurrea idatzi nuenean nirekin izandako tratu ona eta eskuzabaltasuna. Ahaztuko ez ditudan bezala bere hainbat liburu. Konbentzituta nago gure benetako nobela eusko-amerikanoa eginda dagoela, eta **Irigoien**ek Ameriketako errealismo-magikoa etxekotuz idatzitako *Babilonia* dela. Eta nik neuk ez ditut poemario asko miresten *Hutsetik esperantzara* (GAK, 1975) edo *Denborak ez zuen nora* (Erein, 1991) miresten ditudan moduan. Ezta ere nobela asko maite *Ipuin batean bezala* (Elkar, 2002) maite dudan moduan.

Arbasoen gelan dago orain **Irigoien** eta han egongo da piztuta bere suziria itzaltzen ez badugu. Ez dezagun itzali. Gogora dezagun zorionekoak garela, tarteka halako gizon eta andre monumental batzuk sortzen direlako gure artean. Miretsi ditzagun, geure bihotz guztiarekin, hobeak izaten laguntzen diguten aberkide horiek eta, idazleak epaitzerako orduan, gogora dezagun ez dagoela zertan ahaztu **Joan Mari Irigoien** bakar bat egon dela munduan baina denok portatu gaitezkeela **Joan Mari Irigoien**ek erakutsi zigun moduan.




ARGAZKIA: ELKAR




**OSO LATZA IZAN DA**
Xabier Mendiguren
ELKAR

**Izenburua ezaguna egingo zaio askori: Joxe Arregik presokideei esandakoa Carabanchelgo erizaindegian sartu zutenean, hainbat egunez poliziaren torturapean egon ondoren. Idazleak “Itziarren seme-alaba guztiei” eskaintzen die liburua.**

**Zuk 17 urte betetzeko zenituen Joxe Arregi torturengatik hil zenean Madrilen, 1981eko otsailaren 13an. Ze oroitzapen daukazu egun haietaz?**
1981eko otsaila oso gogoan daukat gertakari indartsuz betea izan zelako. Juan Carlos Erregea Gernikara etorri eta HBko parlamentariek *Eusko gudariak* kantatuz hartu zuten. **José María Ryan** –Iberdueroko ingeniaria, Lemoizko obraren zuzendaria– ETAk bahitu eta hil egin zuen. Joxe Arregi atxilotu eta torturaz hil zen. Handik astebetera izan zen Tejeroren estatu-kolpe saiakera. Eta oso gutxira ETApm-k su-etena eman zuen.

**Arregiren kasuari heldu diozu haren hilotzari atera zizkioten argazki klandestinoen aferatik. Juan Kruz Unzurrunzaga galeristak eman zuen ekintza haren testigantza hil baino pare bat hilabete lehenago.**
**Unzurrunzaga**k kontatu zuen argazki horiek Zizurkilgo hilerrian gorpua hilobitik aterata egin zituztela berak eta **Bixente Ameztoi** pintoreak; egundokoa iruditu zitzaidan albistea. Garaitsu hartan ezagutu nuen Ameztoiren alarguna, **Virginia Montenegro**, Juan Kruzek esandakoarekin haserre zegoena. Aurtengo udaberrian Ameztoiren alaba topatu nuen eta bat-batean sentitu nuen horretaz idazteko bulkada. Mugitzen hasi nintzen, norekin hitz egin nezakeen begiratu... Nahiko azkar idatzi dut, motibazioa lehendik nekarrelako.

**Ez da nobela poliziako bat, ezta torturari buruzko txosten bat ere. Kronika literarioa dela esan dezakegu?**
Polita da definizioa. Nire burua batzuetan libre utzi dut nahita, halako edertasun literario bat bilatuz, baina beste batzuetan oso estu hartu dut. Adibidez, liburuan ez dago elkarrizketarik, ez zitzaidan ateratzen. Gehienez ere egin ditut suposizio batzuk pertsonaia zentralen profil psikologikoari buruz, eta gertakarien alderdi soziologikoaz.

> *“Busti naiz, guztiz gainera, torturaren kontra eta hori posible egiten duen sistema guztiaren kontra”*

**Busti egiten zara.**
Busti naiz, guztiz gainera, torturaren kontra eta hori posible egiten duen sistema guztiaren kontra: atxilotua isolatzea baimentzen duen legedia, hori bultzatu duten politikoak, ezkutatu duten komunikabideak eta abar. Tortura giza duintasunaren aurkako ekintzarik itsusienetako bat da. Hortik aurrera ez ditut bereziki goratu nahi izan **Joxe Arregi**ren ideiak, edo haren erakundea, ez da hori izan nire asmoa.

**Tarteka zure aldartea azaltzen duzu, tortura presente dagoen neurrian.**
Torturatu izan dituzten lagunak izan ditut, baina horretaz ez dugu hitz egin, zaila gertatzen zaidalako. Badago euskaldun klase bat samuraiaren etika bat bezala duena, ez kexatzearena. Esaten zuten **Joxe Arregi** ere ez zela kexatzen; hori diote ospitalean ikusi zutenek. Esperientzia izugarria izanda ere, hortik pasatakoek, edo lotsagatik edo espresatzea ez delako erraza, ez dute normalean kontatu izan.

**Carabanchelen zeuden hiru presok –tartean Iñaki Agirre eibartarra– Arregiren egoerari buruz emandako lekukotza ikaragarria da.**
Izugarri indartsua da eta iruditu zitzaidan sartu behar nuela ezeren apaingarririk gabe. Euskaratzea besterik ez dut egin. Haiek izan ziren testiguak; **Iñaki Agirrez** gain, beste biak gailegoak ziren, bat Grapokoa eta bestea PCE(r)koa. Elkarrizketa batean Agirrek kontatu zuen gutuna nola atera zuten. Abisatu zien aitari eta arrebari egoteko kartzelaren aldameneko lursail batean; gutuna sartu zuten tenis pilota batean, preso sozial bati eman, hark tiragomaz jaurti, eta Agirreren arrebak eta aitak jaso zuten. Ostiral batean hil zen Joxe, eta igandean argitaratu zuen *Egin*ek. Argazkiena izugarrizko ekintza izan bazen, gutuna bera ere bada inportantea.

**ELIXABETE GARMENDIA LASA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/xmendiguren73**

# MARÍA ORUÑA

***Los inocentes*, publicada por Destino, es la sexta entrega de la serie *Los libros de Puerto Escondido*, creada por María Oruña. La autora viguesa, cuyas novelas han superado el millón de lectores, vuelve a situar la acción en Cantabria.**



FOTOGRAFÍA: SILVIA PARADA




**LOS INOCENTES**
María Oruña
DESTINO

La teniente Valentina Redondo –vieja conocida de los amantes de esta serie– está inmersa en los preparativos de su boda cuando recibe una llamada del capitán Caruso: muy cerca de donde ella se encuentra, en el balneario de Puente Viesgo, se ha cometido un brutal asesinato múltiple. Redondo tendrá que emplear a fondo sus habilidades deductivas y el sexto sentido de su desarrollada inteligencia emocional para enfrentarse a uno de los casos más complicados de su carrera.

**Cada una de las entregas de la serie *Los libros de Puerto Escondido* rinde homenaje a un tipo de novela policíaca o de enigma. ¿Podríamos decir que en *Los inocentes* mezcla el género de acción con la novela psicológica?**
Creo que, en esta ocasión, la acción es lo primordial. Un juego de ingenio envuelto en misterio y acción.

**Nos reencontramos con Valentina Redondo, que está a punto de casarse cuando debe interrumpir los preparativos porque se ha cometido un asesinato múltiple. Imagino que esa premisa argumental habrá condicionado también su trabajo de documentación.**
No especialmente. Cada novela debe tener un universo propio, y el de los "detectives" es accesorio y circunstancial.

> *"El mal puede visitar cualquier lugar"*

**Redondo prefiere investigar en solitario, pero por las características del caso va a tener que interactuar con profesionales de otros cuerpos policiales y militares, con el brigada Peralta, entre ellos. Da la impresión de que ha disfrutado con la creación de este nuevo personaje, ¿es así?**
Sí, claro. En realidad, disfruto con el reto en sí: no solo con el de crear una novela detectivesca diferente a las anteriores, sino en la forma de investigar, en la necesidad de romper los esquemas. Que Valentina tuviese que compartir protagonismo y decisiones me pareció interesante.

**Definitivamente –al menos hasta el momento–, Cantabria es su escenario. En esta ocasión nos lleva hasta el balneario de Puente Viesgo. ¿Por qué ha elegido ese enclave?**
Porque quería el máximo contraste entre la paz, lo idílico, y la maldad. Puente Viesgo es uno de los sitios más tranquilos y amables que conozco, y el agua es tan pura que hasta los mirlos acuáticos sobrevuelan el río. El mal puede visitar cualquier lugar.

**La novela *Crimen y Castigo*, de Fiódor Dostoyevski, no es solo referenciada en *Los inocentes*, sino que tiene importancia narrativa.**
Sí, la novela en sí misma es una reflexión sobre qué ha entendido por justicia la humanidad según las épocas, y qué se considera o no crimen según las circunstancias. También se ahonda en la venganza con numerosas citas de *El conde de Montecristo*, que para mí es la novela de la venganza con mayúsculas.

**TXANI RODRÍGUEZ**
Periodista





ARGAZKIA: ZALDI ERO

# PATXI ZUBIZARRETA

**Memoria-ariketa harrigarria egin du Patxi Zubizarreta idazleak liburu berrian: *Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarratarren uberan* (Txalaparta, 2023). Gernikako familia baten hari-muturrari tiraka, erbestealdia osatu du, eta itzulera. Eta, bidean, gure historiaz jabetzeko nahi beste pertsonaia eta gertatu gurutzatu, eta eskaini digu lan eder bat irakurleoi, ohi duen finezaz.**

***Sakonean, itsasoa ikusten da. Miangolarratarren uberan*. Zein eta zein ziren miangolarratar horiek?**
**Francisco Miangolarra** eta **Maria Asuncion Gorostiaga** senar-emazteak, eta haien seme-alaba Luz, Laura, Augusto eta Pako ditugu miangolarratarrak. Francisco Miangolarra itsas kapitaina zen, gernikarra jaiotzez. Sota familiaren ontzidian zebilela, Pasaiara destinatu zuten, eta familia Donostiara lekualdatu zen. Baina 36ko gerrak harrapatu zituen eta, Gernikan barrena, Baionara, Parisera eta, azkenik, Caracasera alde egin behar izan zuten.

**Caracasera heldu eta miangolarratarrak ez ziren geldirik egon...**
Ez, horixe! Luzek Los Caobos ikastetxea sortu zuen, eta Augusto izan zuen lagun, baina laster Augusto eta Pakok litografia bat sortu zuten eta, besteak beste, Venezuela kartografiatu zuten. Begira, **Paul Wittgenstein** pianista Lehen Mundu Gerratik besamotz itzuli zen, eta **Ravel** musikariari ezker eskurako obra bat konposatzeko eskaera egin zion. Era berean, miangolarratarrek, bereziki Pakok, maingu ikusten zuten Euskal Herria, mapa bat behar zuen, eta **Krutwig** idazleari eskatu zion mapa: hortik sortu zen *Vasconia* obra. Partitura bat ere behar zuen, eta kultura eta autoestimua, eta *Herri Gogoa* diskoetxe klandestinoa bultzatu zuen.

**Miangolarratarren uberan, hainbat izen eta izan bildu dituzu liburura: oraintxe aipatu duzun Federiko Krutwig, adibidez, eta hura ez ezik, Marc Legasse, Koldo Mitxelena… Baita EAJ eta ETA hasiberri hura ere...**
Donibane Lohizunen KLM [Krutwig-Legasse-Miangolarra] sortu zuten, **Lezo Urreiztieta**rekin batera. Utopia kartografiatu nahi zuen hiru mosketarien taldea zen. Bestelako Euskal Herria sortzeko konprometitu ziren, eta EAJ alderdia bezalaxe kritikatzen zuten hezurmamitzen ari zen ETA erakundea. Euskal Herriaren beste argazki bat bilatzen zuten.

> *“Iragana ez da monolitikoa, gertakari beraren oroitzapenak askotarikoak eta kontraesankorrak dira”*

**Hainbat elkarrizketa egin dituzu liburua ondu ahal izateko, baina, nobelatu egin duzu lana, *Julien Vinsonen hegaldia* liburuan bezala.**
Baina **Julien Vinson**ekin baneukan non ikertu, idazle frantsesak euskara ikasi zuen eta asko idatzi zuen. Saturno globo aerostatikoan Baionan aireratu eta, ezbeharrez, Iruñean erori zen. Baina KLMren garaia ez zen XIX. mendea, eta XX. mende erditsuan klandestinitatea zen nagusi eta, Krutwig oso argazkizalea zen arren, material grafikoarekin batera, material bibliografikoa falta da. Hala bada, elkarrizketa izan dut baliabide nagusi, eta Miangolarratarrekin batera, **Eneko Irigaray** eta **Iñaki Larramendi** –biak ETAko sorreran egondakoak–, elkarrizketatu ahal izan nituen, edota **Jose Angel Irigaray**, **Benito Lertxundi**, **Iñaki Anasagasti**, **Eugenio Ibarzabal**… Benetako plazera eta ikasgaia.

**Zerk jarri zintuen lan honetara?**
Beste pianista batek bultzatu ninduen, musikatik abiatuta, lan hau egitera: **Joserra Senperena**k. *Herri gogoa* diskoetxetik **Lourdes Iriondo**, **Lete**, **Laboa**, Valverde… igaro ziren, baina Donostian inor gutxik du horren berri. Joserrak, aldiz, berehala jarri ninduen **Eva Miangolarra**rekin harremanetan. eta **Leire**rekin [Estornes Miangolarra]. Eta gero etorri zen itsasaldia, deskubrimenduz eta adorez bete zitzaigun.




**SAKONEAN, ITSASOA IKUSTEN DA**
MIANGOLARRATARREN UBERAN
Patxi Zubizarreta
TXALAPARTA

**MIEL A. ELUSTONDO**
Kazetaria



“Esta novela acerca el lado oscuro de las pasiones humanas a los crímenes más cruentos de la literatura universal”

# ÁNGELA BANZAS

FOTOGRAFÍA: PACO NAVARRO

**El suspense, la tradición, los secretos y las relaciones prohibidas son algunos de los elementos que vertebran esta historia. Ambientada en una tierra mágica, con tintes de los cuentos góticos de Poe y las insólitas leyendas de Bécquer, *La sombra de la Rosa* destila pulsión literaria en cada una de sus páginas. El libro es, además, un homenaje a la memoria histórica, a una manera de habitar el mundo gobernada por el valor de las palabras y la honestidad de las personas. También es testimonio de que lo racional y lo mítico pueden convivir incluso en el convulso devenir de nuestros días.**

**¿Qué tiene Galicia para que la convierta en escenario ideal de sus historias?**
Galicia es mi tierra. Mis raíces beben de sus ríos y se embelesan frente a sus mares eternos. Soy una enamorada del paisaje, de mis gentes y de cuanta tradición oral guardan. Cuando vuelvo a Galicia me siento como un peregrino en busca de refugio, de ese lugar en el que acurrucarse sobre el regazo de una madre para escuchar viejas historias y leyendas ancestrales. Galicia se perfila ante los ojos de visitantes y observadores con aura de misterio, escéptica, dual: religiosa y pagana al mismo tiempo. Su luz y su sombra encandilan por igual.

**Es evidente la influencia de los cuentos góticos de Edgar Allan Poe o las leyendas de Bécquer en su literatura. ¿Qué otros autores o autoras le han influido?**
En esta historia es innegable la influencia de los autores mencionados, pero no han sido los únicos. Por supuesto que me alimentado (quizá en el sentido más amplio del verbo) de autores malditos como **Baudelaire**, **Rimbaud** o el **marqués de Sade**, pero también de otros exponentes del romanticismo como ha sido **Friedich Hölderlin**. Tanto su vida como su excelsa obra me inspiró para crear a Guillermo de Foz, mi poeta maldito.




**LA SOMBRA DE LA ROSA**
Ángela Banzas
SUMA DE LETRAS

**¿Qué le diría al lector o lectora que se asoma a *La Sombra de la Rosa*? ¿Con qué se va a encontrar?**
Les diría que se van a encontrar una novela de misterio con una profunda carga emocional que los atrapará hasta su última página. *La sombra de la rosa* acerca el lado oscuro del amor y las pasiones humanas a los crímenes más cruentos de la historia de la literatura universal.

**¿Cómo ha sido el proceso de documentación?**
Dos han sido los campos a explorar para dar forma a esta novela. De un lado la documentación histórica de la zona a través de libros y demás recursos facilitados por **Manuel Villaronga**, reputado historiador y periodista de Vilagarcía que me allanó todos los caminos y facilitó cada documento.
Una de mis partes favoritas con cada novela es entrevistar y escuchar cuanto me quiera contar la gente de la zona. En este caso, los descendientes de los últimos pobladores de la isla de Cortegada. Un lujo haber tenido la suerte de conocerlos. Desgraciadamente uno de ellos no llegará a leer esta novela. Por último, profundizar en la vida y obra de autores considerados malditos por una forma de sentir excepcional, por los misterios y las tinieblas que envuelven sus obras, ha resultado una experiencia absolutamente enriquecedora que me ha traspasado por completo.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa: https://labur.eus/abanzas73**





# URKO MANTZIZIDOR

*“[La evolución del personaje de Irati] es la evolución natural que, con gran esfuerzo, se ve que están teniendo gran parte de las mujeres en los últimos años”*

ARGAZKIA: NATALIA SALAZAR




**LA VIDA ES UN TANGO, GARI**
Urko Mantzizidor Torrontegi
ALBERDANIA

***La vida es un tango, Gari*** **narra la historia de un joven deportista amateur que, tras encontrar un fardo de cocaína en la ría de Urdaibai, se ve involucrado en el oscuro mundo del narcotráfico en Bizkaia. Empujado por su ambición y egoísmo, el protagonista no prevé los peligros que acarreará esa decisión para él y para su familia. Urko Mantzizidor Torrontegi (Mundaka, 1977), en esta su primera novela, hila una acción trepidante con una crítica social que no deja indiferente y hace reflexionar sobre diversos aspectos.**

**El egoísmo del protagonista desencadena la trama principal de la novela. Gari sería el prototipo del adulto que no termina de aceptar que tiene responsabilidades que atender. ¿Te preocupa esa actitud de eterno Peter Pan?**
Sí, es algo que me preocupa en el sentido de que es algo que veo muy a menudo, sobre todo, en los hombres de mi generación. Quería aprovechar esta novela para explorar sobre ese tema y que fuese también el desencadenante de la trama.

*“Creo que una de las virtudes de la novela negra es que nos sirve para describir la sociedad, lo que no funciona o lo peor que hay en ella”*

**Urdaibai se ha convertido en escenario de varias novelas negras. ¿Qué diferencia esta de las demás?**
No es la típica novela negra, en el sentido de un misterio que tiene que ir desentrañando el lector junto con el escritor; es más bien un thriller. El género negro abarca muchos tipos de literatura y diría que esta es una novela criminal o thriller, más que una novela de misterio.

**La crítica social es una constante: el abuso del poder, la corrupción o la desidia hacia las personas marginadas. ¿De dónde surge esa inquietud?**
Es una preocupación que me ha acompañado durante toda mi vida. Creo que una de las virtudes de la novela negra es que nos sirve para describir la sociedad, lo que no funciona o lo peor que hay en ella. Tenemos muchas cosas que mejorar en esta sociedad, como decías: los abusos de poder, qué pasa con las drogas, qué hacemos con los delincuentes, qué hacemos con los adictos o qué no hacemos más bien… Sí, es algo que me preocupa. Y luego está, por supuesto, el machismo, que atraviesa toda la novela. Tal y como decías al principio, el síndrome de Peter Pan o el evadir las responsabilidades. He aprovechado para plasmar lo que me preocupa.

**Irati, la otra protagonista, sufre una evolución importante. Pasa de ser la esposa y madre abnegada a empoderarse y tomar las riendas de unas situaciones muy complicadas y peligrosas. ¿Ha sido un proceso natural el que debía tomar ese personaje?**
Sí, y, además, en un principio no lo estaba tomando. Mientras escribía la novela, en un primer momento, no había apenas personajes femeninos. Irati existía, pero tenía un desarrollo bastante plano; no intervenía realmente en el meollo de la trama. Aconsejado por la persona que iba leyendo la novela a medida que la iba escribiendo, me di cuenta de que tenía que darle más presencia o un rol más principal. De ahí viene que ella tenga esa transformación que además creo que no chirría, porque es la evolución natural que, con gran esfuerzo, se ve que están teniendo gran parte de las mujeres en los últimos años en nuestra sociedad.

**NATALIA SALAZAR ORBE**
Periodista

# NAROA ZUBILLAGA

**Naroa Zubillagak ekarri du euskarara Marlen Haushofer (1920-1970) idazle austriarraren lanik garrantzitsuena: *Horma* (Erein argitaletxea). Eleberrian, Alpeetan, horma ikusezin batez inguratuta dagoen emakume batek bizirautea izango du helburu.**



ARGAZKIA: EREIN




**HORMA**
Marlen Haushofer
EREIN

**Irakurleak ez du topatuko ohiko eleberri bat…**
Ni neu ere harritu nintzen pixka bat: elkarrizketarik ez zegoela, ezta atal desberdinik ere. Egia esan, narratzaileak berak abisatzen digu lehenbiziko orrian, txosten bat dela, alegia.

**Elkarrizketarik gabe eta deskribapenak barra-barra, badirudi nahiko astuna egin daitekeela irakurketa, baina harrigarriki, badu erritmoa eta tentsio narratiboari eusten dio…**
Erritmoa pausatua baina egonkorra da. Esan liteke naturaren erritmoa bereganatzen duela liburuak, naturaren erdian gertatzen den istorio bat denez. Bitxia da: kontakizunean bertan, uneren batean, protagonistak dio bereganatua duela menditarren erritmo edo ibilera, kaletarrenaz oso bestelakoa. Nik uste liburuari ere gauza bera gertatzen zaiola. Hala ere, eta erritmoa erritmo, tentsio narratibo jakin bati eusten dio, bizirauteaz ari baita etengabe. Irakurleak gogotsu jarraituko du irakurtzen, jakin nahiko duelako protagonistak nola egingo dion aurre egur faltari, hotzari, goseari edo gaitzari, besteak beste. Erritmo eta tentsio narratibo hori *sprint* batean azkartuko da azken orrialdeetan, berriz ere pausatzeko.

**Distopia baten elementuak ditu, baina baditu ere elementu errealistak; hausnarketa mordoa emakumearen rolaz gizartean, ekologia…**
Zenbait literatura adituk ekofeministatzat daukate liburua. Ez naiz ni inor halakorik ziurtatzeko. Egia da naturarekiko begirunea hor dagoela, eta baita emakume baten barrura begirakoa ere. Hala ere, ez dut uste egileak inolako aldarrikapen kontzienterik egin nahi zuenik. Nolanahi den, hormaren elementua aitzakia bat da, inondik ere. Irakurleak 40 urteko emakume baten bizitzari buruzko hausnarketa zintzoak aurkituko ditu, eta nola emakume horrek bere burua berrasmatzen duen aurrean dituen zailtasun fisiko naiz emozionalei aurre egiteko.

**Itzulpenari dagokionez, zeintzuk izan dira zailtasunak?**
Testu honetan etengabe ageri ziren naturari lotutako zereginen deskribapenak edo ingurumenari erreferentzia egiten dioten hitzak: protagonista belarretan hasten denean, egurra moztu eta txikitzen, patatak ereiten edo eguraldia eta inguruko parajea deskribatzen hasten denean. Horiek denak ahalik eta ondoen egitea garrantzitsua zen, eta Inazio Mujikaren laguntza funtsezkoa izan da.

**Zure ustez, zein da liburu honen bereizgarria?**
Protagonistaren ahotsa, bizitzari eta harremanei buruzko ikuspegi zintzoa eskaintzen baitu. Ezaugarri horrek bihurtzen du liburua, hain zuzen ere, gaurkotasunekoa.

> *“Irakurleak jakin nahiko du protagonistak nola egiten dion aurre hotzari, goseari edo gaitzari”*

**Ezagutzen zenuen idazlea? Idazlearen liburu gehiago irakurtzeko gogoa piztu zaizu?**
Aurkikuntza bat izan da. Halakoetan, mundu berri bat zabaltzen zaizu, eta bidaia bat egitea bezala da. **Marlen Haushofer**ren bizitzaren ingurukoak ezagutu ditut harrezkero, eta emakume interesgarria izan zela esan behar dut. Tamalez, gazte hil zen (50 urterekin), baina utzi zituen, *Hormaz* aparte, liburu gehiago idatzita.

**UXUE RAZQUIN**
Editorea




# SI TU PERRO HABLARA...

## Una guía ilustrada para cuidar y entrenar a tu perro con amor

RBA




**SI TU PERRO HABLARA...**
UNA GUÍA ILUSTRADA PARA CUIDAR Y ENTRENAR A TU PERRO CON AMOR
Mat Ward
RBA

Mat Ward es un reputado experto en el comportamiento de perros y gatos. Trabaja en Edimburgo (Escocia) pero su reputación salta fronteras a medida que se conocen sus métodos y resultados. Su libro *Si tu perro hablara...* nos invita a comunicarnos de forma fluida con nuestro perro.

Los perros son más que mascotas, pueden llegar a convertirse en el mejor amigo que hayamos tenido jamás. Con los consejos de **Mat Ward**, el gran experto en comportamiento animal, aprenderemos a entender el lenguaje corporal de nuestro perro y qué significan sus diferentes ladridos. Además, descubriremos las técnicas más modernas para entrenar a nuestro amigo canino, tenga la edad que tenga. Practicaremos juegos nuevos, desarrollaremos sus habilitades de comunicación y disfrutaremos el uno del otro.
En este libro, el autor desarrolla un método de adiestramiento novedoso basado en el respeto y el amor, sin utilizar el dolor, el miedo, ni la intimidación. Además, incluye información basada en los descubrimientos científicos más recientes sobre conducta canina. Se trata de un libro, con ilustraciones atractivas y divertidas, útil tanto como método de entrenamiento como para crear un vínculo afectivo con la mascota.
Da la sensación de que todo el mundo tiene una opinión sobre el comportamiento y el entrenamiento de los perros. La información que encontramos en libros y en internet parece interminable y a menudo resulta contradictoria y confusa. ¿Cómo separar el trigo de la paja cuando estás intentando digerir toda esta información? **Mat Ward** ofrece respuestas certeras en este libro. El autor, licenciado en Psicología y Zoología, es conductista animal titulado con veinticinco años de experiencia, especializado en perros y gatos. Todos los días ayuda a las personas y a sus mascotas cerca de Edimburgo (y en todo el mundo) brindándoles consejos de entrenamiento y comportamiento prácticos y efectivos.




**ECONOMÍA CIRCULAR TRANSFORMADORA Y CAMBIO SISTÉMICO**
RETOS, MODELOS Y POLÍTICAS
Xavier Vence
FCE

FCE

# ECONOMÍA CIRCULAR TRANSFORMADORA

El mundo se halla en una situación sin precedentes, al que le ha llevado un sistema económico poco respetuoso con su entorno natural y humano. En *Economía circular transformadora y cambio sistémico*, un amplio abanico de expertos aborda la transición hacia una actividad económica que realmente sea sostenible.

El desbordamiento de los límites ecológicos del planeta reclama una urgente y profunda transformación del actual modelo económico para caminar hacia una economía circular y sostenible, conscientemente respetuosa de esos límites. "Como economistas, -reflexionan los autores del libro, dirigidos por **Xavier Vence**- debemos superar el corsé del discurso convencional aportando diagnósticos rigurosos de las causas de los problemas acumulados y proponer las transformaciones necesarias en las instituciones, las reglas de juego, los mercados, los modelos de negocio, las pautas de consumo y las políticas e instrumentos económicos para impulsar un cambio sistémico que ha de ser justo ambiental, territorial y socialmente".
El objetivo es contribuir al debate en la academia y a la formación de nuevas generaciones de estudiantes, así como nutrir de ideas a las instituciones y los movimientos sociales, que son, todos ellos, actores necesarios del cambio hacia una economía realmente sostenible.
Este libro aporta análisis y reflexiones sobre temas claves para esa transformación circular sostenible: una revisión crítica de los diferentes enfoques de la economía circular y de las propuestas reduccionistas dominantes; los indicadores para diagnosticar la realidad y cuantificar la economía circular; el estudio empírico de las especificidades de las actividades circulares y los diferentes modelos de negocio circulares; el papel del comercio internacional, el transporte y las cadenas globales de valor y, por último, un estudio sistemático de las diferentes políticas relacionadas con la economía circular, con especial atención a las desarrolladas en la Unión Europea, desde las políticas regulatorias, a la ecoinnovación, la compra pública o las políticas fiscales.




ARGAZKIA: MAIDER EGUES




**ARRAKASTA**
Jasone Osoro
ELKAR

**_Arrakasta_ izeneko erreportaje-saiakera atera berri du Jasone Osorok, gai horretaz hausnarrean eta berbetan hainbat arlotako sortzaile eta profesionalekin: Itziar Ituño, Gorka Urbizu, Harkaitz Cano, Izaro, Jon Garaño, Eneko Atxa, Aizpea Goenaga, Markel Irizar, Porrotx...**

**Zergatik pentsatu zenuen gai honi buruzko liburu bat idaztea?**
Tarteka sorkuntzari zein idazle ofizioari lotutako krisiak izaten ditut, eta horietako batean zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Krisien inguruko lanketa bat egitea izan zen lehen bulkada. Zergatik ezin dut sortu? Zergatik ez dut sortu nahi? Ideiari forma ematen hastean ikusi nuen gaia arrakasta izan zitekeela eta krisia azpigai bat.

**Nola egin duzu elkarrizketatuak hautatzeko?**
Arlo ezberdinetan arrakasta izan duen eta gai horren inguruko diskurtsoa izan dezakeela uste nuen jendearekin zerrenda bat egin nuen. Maider Egues laguna dut eta berarekin komentatu nuen lehenbizi. Bere baietza jaso nuenean hasi nintzen amua botatzen besteei. Nire harridurarako, ekipoa berehala osatu nuen, eta hori ezinbestekoa izan zen gaia interesgarria zela sinisteko.

**Literatura, ziklismoa, musika, aktoreak, kazetariak, sukaldaritza, pailazoa… Egon da arloren bat kanpoan geratu zaizuna?**
Enpresa-munduko emakume nagusi bat elkarrizketatu nahi nuen. Baneukan izen bat eta harremanetan jarri nintzen haren familiarekin, baina, arrazoi pertsonalak tarteko, ezin izan zen izan.

**Elkarrizketatuen bizipenak oro har bat datoz ala bere-bereak ditu bakoitzak?**
Hara, liburu hau idaztea oso bidaia ederra izan da. Nik ez nituen elkarrizketak egin nahi, nik bakoitzarekin tertulia bat izan nahi nuen, kafe baten bueltan eseri eta honetaz eta hartaz hitz egitea; haurtzarotik hasita, nola eragiten duen izaerak, zenbat dagoen talentutik, zenbat lan eta diziplina behar den, nola baldintza dezakeen generoak, hizkuntzak, zorteak berak… Erraz esaten dugu halako edo bestelako abestia arrakastatsua izan dela etab. Baina gero kosta egiten zaigu onartzea arrakasta izan dugula. Ez dauka fama ona arrakasta hitzak euskaldunontzat, eta nik esango nuke ariketa aberasgarria izan dela guztiontzat horren inguruan hausnartzea, ozen, beste pertsona batekin, ulertuko zaituena, epairik egin gabe, libre. Eta hori guztia, noski, bakoitzak berebereak dituen bizipen eta iritzi propioetatik.

**Beste aldea ez da ageri: publikoa. Zure ustez, nola pertzibitzen du publikoak arrakasta?**
Liburuan parte hartu duen batek baino gehiagok badaki publikoak pertsona arrakastatsu bezala ikusten duela baina bera ez da horrela sentitzen, berarentzat arrakasta ez delako publiko orokorrak pentsatzen duen hori. Nire ustez, liburu honen ekarpen handienetarikoa da ikustea nola bizi duen bakoitzak arrakastaren kontzeptua, zer eman eta zer kendu dion. Uste dut inoiz kontatu ez dituzten gauza asko aitortu dutela liburuan. Oso eskuzabalak izan dira, eta irakurketa atsegina ez ezik aberasgarria ere badela uste dut. Pertsona horiek barrutik ezagutzeko modua da, eta arrakasta bezalako gai korapilatsua zertxobait argitzeko heldulekuak eskaintzen dituena.

**TERESA LARREA**
Kazetaria



# JOSÉ DUESO

**“Como las aguas del mar, las distintas mitologías pertenecen a un mismo océano”, dice José Dueso. Su nuevo libro es un cuaderno de bitácora de una singladura por ese océano que permite conocer *Quién es quién en la mitología vasca y sus parientes por el mundo*.**



ARGAZKIA: TXERTOA



**QUIÉN ES QUIÉN EN LA MITOLOGÍA VASCA Y SUS PARIENTES POR EL MUNDO**
José Dueso
TXERTOA

**¿Su libro es un diccionario de mitología?**
Es una visión de conjunto de la mitología vasca y de su relación con mitos de otras partes del mundo cuyos parecidos nos alertan de un linaje común. En ese sentido, no es un diccionario, aunque los índices analíticos permiten utilizarlo como tal.

**En esos índices se recogen más de doscientas entradas para seres de la mitología vasca y otros tantos para los de otras mitologías. ¿No es mucho parentesco?**
No. Aunque las formas de presentarlos varíen, todos pertenecen a un mismo tronco. Un árbol con abigarrado ramaje podría ser un buen símil para explicarlo.

**En la línea de José Miguel Barandiaran, sostiene que Mari está en la cúspide del panteón vasco. En el grecolatino, los dioses principales son masculinos. ¿Eso establece algún tipo de diferencia?**
En las mitologías griega y romana, como en otras más antiguas, antes de que los dioses adquiriesen el protagonismo, fueron diosas las artífices de todo lo creado. Esas diosas, incluso en el momento de mayor esplendor de los grandes dioses, no llegaron a desaparecer, y, transformadas, disfrazadas de vírgenes, santas u otros personajes, han llegado hasta hoy. Es una de las cuestiones que espero haber dejado clara en el libro.

**Tartalo e incluso Olentzero debieron suscitar auténtico terror entre nuestros ancestros. Hoy subsisten waltdisneyzados. ¿Eso es bueno?, ¿es malo?**
Tartalo es el gran coco de la mitología vasca. Olentzero ha podido causar temor, pero siempre ha sido otra cosa, y ha evolucionado hasta convertirse muy modernamente en el personaje entrañable que hoy conocemos. La waltdisneyzación responde a un empeño por acomodar los mitos a los intereses del momento, aquí y en todas partes. Eso, más que bueno o malo, es inevitable.

> ***“Lo que llamamos mitologías fueron en origen religiones. Y las religiones, como sabemos, han ido evolucionando en función de unos intereses.”***

**Precisamente dedica el último capítulo a ese empeño, del que en el siglo XIX surgieron personajes como Aitor o Amaia…**
Es un fenómeno que se produce en todas las culturas, pero que tiende a señalarse sobre todo en las más pequeñas. Cuando falta una historia o una ley escrita para justificar la antigüedad de un pueblo, su derecho o lo que sea, se inventa un mito. Luego se difunde de tal manera que la mayoría acaba por no distinguir que es “postizo”, y pasa a convertirse en parte de la mitología. Es lo que sucedió con la que ha dado en llamarse “tradición romántica”, de la que surgieron mitos de nuevo cuño como Aitor o Amaia. Como digo, es algo que tiende a señalarse sobre todo en las culturas pequeñas, pero que se produce en todas y, antes que en ninguna, en las más grandes.

**¿Las mitologías son simples colecciones de relatos más o menos atractivos?**
De ningún modo, aunque ya solo por su corpus de narraciones merezcan nuestro interés y atención. Las mitologías fueron en origen religiones, que han ido evolucionando en función de unos intereses.

**Es decir, que de la evolución de las actuales religiones surgirán nuevas mitologías…**
De hecho, están surgiendo ya, no solo de las religiones sino, en general, del actual sistema de creencias. Están surgiendo mitologías históricas, lingüísticas, sociales… Por ejemplo, la ciencia es un campo que está sacralizado, con sus doctrinas, sus liturgias y también con sus dogmas. La gente afirma que “cree en la ciencia”; bonita paradoja. En consecuencia, está surgiendo también una mitología científica. Una de las características de estas nuevas mitologías es que, como corresponde a nuestros tiempos, lejos de estar localizadas en culturas y pueblos concretos, tienden a obtener una difusión de carácter global.

**KARMELE URRUTIA**
Periodista

elkar fundazioa

# Eskubide murrizketarik ez!



ARGAZKIA: KONTSEILUA

Ez da berria Euskal Herrian euskara normalizatzeko hartutako neurrien aurrean Espainiako botereetatik haiek bertan behera uzten saiatzea, baina uka ezina da azken hilabeteetan oldarraldi judiziala neurri guztiak gainditzen ari dela. Euskal erakundeetan lana egiteko euskara eskatzen duen lan deialdi ororen gaineko helegiteak egiten dituzte euskararen kontra ari diren alderdi, sindikatu edota bestelako eragileek, eta helegite horiek onartu egiten dituzte era guztietako auzitegietan. Alde batetik, administrazioak euskaraz egin dezan hartutako neurriak baliogabetu eta euskara bigarren mailako hizkuntza izatea nahi dute. Bestetik, behin eta berriz mugatu nahi dute Euskal Herriko eragileen agintea, bereziki Euskal Herria egituratzen duten gaietan.

Larria da egoera, oso larria. Etengabe Euskal Herriaren eta euskararen kontrako neurriak hartzen dituzte. Auzitegietatik etorritako sententzien artean, Auzitegi Konstituzionalak Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak gehiengo oso zabalez onartutako Udal Legearen kontrakoa dago, non hori egiteko aukera duten udalei debekatu egiten zaien euskara hutsez lan egitea. Bi hizkuntza ofizial "dituen" autonomia erkidego batean euskara hutsez aritzea ez da legezko, baina gaztelania hutsez aritzea onargarri da. Ondorioz, benetan ofizial den hizkuntza bakarra gaztelania da, bestea ofiziala da baldin eta epaileek hala nahi badute, gainerakoan ez; edozein eragilek jarritako helegitea nahikoa da epaileek hori horrela dela erabaki dezaten.

Oldarraldi zabala dago Euskal Herrian euskarak estatus ofizial erreala izan dezan egiten den urrats ororen kontra. Izan ere, zoritxarrez, jarrera horiek ez dira bakarrik epaileen aldetik ikusten; euskara, kasurik onenean, bigarren mailan baino onartzen ez duten eragileak ari dira euskararen normalizazioari mugak jartzeko ahaleginetan, alderdi, sindikatu eta hedabide batzuk tartean. Eta horren aurrean erantzun argi bat antolatzen ez bada, gero eta indar handiagoz egingo dute.

Nola erantzun? Lanean jarraituta. Ezin da etsi, urrats bat ere ezin da egin atzera, aurrera egin behar da. Batetik, euskaraz bizitzeko hautua egin eta horri eutsi behar zaio, bakoitzak bere eremutik, maila pertsonalean zein kolektiboan. Bestetik, erabaki horien aurrean kalean erantzun, ez direla onartuko ozen esan, eta atzera egiteko tentazioa izan dezakeenari horretarako erabakiak hartzea zaildu. Giro horretan, Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4rako Bilbon deitu duen manifestazioa ezinbesteko hitzordua da euskaldunontzat, elkar Fundazioa han izango da, eta deia zabaldu nahi dugu bertara joateko. Egunerok lanaz gain, oso garrantzitsua da kalera bat eginda atera eta ozen esatea euskararen kontrako neurriak ez ditugula onartuko.

Nahiko genuke euskaraz bizitzea gauza naturala izan dadin, baina ez da hala. Erabaki eta hautu kontzientea da gaur egun euskaraz bizitzea Euskal Herrian, euskararen herrian, eta hori horrela dela esan egin behar da. Euskaraz bizitzeko, baliabideak eta ingurua behar dira, gaur egun ez ditugunak, eta sortzea galarazi nahi direnak, eta are gehiago mugatu nahi direnak. Horri aurre eragiteko eginkizuna dugu guztiok, herri erakundeek behar diren neurri politikoak hartuz eta gizarte eragileok baldintza sozialak sortuz.

# JON URZELAI

**Jon Urzelai fisikari eta soziologoak *Su Festak* plazaratu du Susa argitaletxearen bitartez. Saiakeran Euskal Herriko musika jaialdiak jorratu ditu modu kritikoan. Horretarako hainbat esparru jorratu ditu, hala nola, ekonomia, historia, gizartea eta urbanismoa.**



ARGAZKIA: JON URZELAI




**SU FESTAK**
Jon Urzelai Urbieta
SUSA

**Nondik sortu zitzaizun *Su Festak* idazteko ideia?**
Musika jaialdiak modu nahikoa akritikoan baloratzen direla ohartu nintzen. Hala, behin jaialdiak bukatuta, kroniketan ez da gauza handirik esaten: bertaratutako zale kopurua, kartel-buruen emanaldien kontu batzuk, zenbat diru utzi duen jaialdiak hirian… Eta iruditzen zitzaidan jaialdi handien inguruko irakurketa sakonago bat behar zela; hots, aztertzea ze paper jokatzen duten egungo gizartean, hirian, Euskal Herrian.

**Horretarako hainbat esparru jorratu duzu…**
Nik ikuspegi sozial batetik aztertu dut gaia, eta horretarako, hainbat esparru aztertu ditut, besteak beste, ekonomia, historia, gizartea eta urbanismoa. Musika jaialdiek egun duten papera ulertzeko arreta jarri behar da kontu horietan, bestela ezin dezakegu ulertu zergatik dagoen BBK Live bat Bilbon, behin Guggenheim bat inauguratu ostean. Musika jaialdiak aztertzeak gure gizartearen berri ematen digu, gure testuinguru historikoaren berri, eta oro har garaien berri.

**Horren harira, jaialdiek sasoi batean zuten urratzeko ahalmena erabat galdu dute, kapitalismoaren isla den ikuskizun hutsaren mesedetan.**
Jaialdiek behinola izan zezaketen potentzial erradikal edo eraldatzaile hori beren kontra joan da. 60ko hamarkadako jaialdiek gorde zituzten asmo utopikoak, baita kapitalismoa eraldatzearen edo abolitzeko gogoa ere, gaur egun, gizarte neoliberalaren tresna bihurtu dira, eta eraldaketarako kasik oztopo. Asmo horiek topatzeko jaialdi molde hau zalantzan jarri behar da. Horiek horrela, jaialdiek izan zezaketen potentzial hori aspaldi agortu da.

> *“Musika jaialdiak aztertzeak gure gizartearen berri ematen digu”*

**Musika jaialdien antolakuntzan gertatzen ari diren monopolioak kapitalismo horren egungo erakusle dira, jaialdiok enpresa gutxi batzuen eskuetan baitaude.**
Promotore txikiak askotan enpresa handiagoen edo inbertsio funtsen eskuetan geratzen ari dira, adibidez, Live Nation. Indarrak esku gutxietan pilatze hori sektore askotan gertatzen ari da, neoliberalismoaren fase honetan, eta jaialdietan ere gauza bera gertatzen da. Gurean ere egoera antzekoa da, jaialdi asko Last Tour enpresaren eskuetan baitaude. Monopolio horiek, gainera, alternatibak zailtzen dituzte, bestelako bide posibleak edo loratzeak oztopatzen baitituzte.

**Azkenik, zein da sortzaileen eta musikaren egungo egoera jaialdi handi horien aurrean?**
Musika grabatuak aspalditik ez du dirurik ematen, ez bazara artista oso entzutetsua; beraz, diru iturri nagusia zuzeneko emanaldiak dira, eta zuzeneko gehienak musika jaialdien arabera antolatzen direnean, egoera zaila da. Eta alternatibarik ezean, haien jokoan sartzea besterik ez dagoela pentsa daiteke, baina, zorionez, Euskal Herrian oraindik badaude bestelako alternatibak: aretoak, jaialdi txikiagoak antolatzen dituzten kolektiboak, gaztetxeen zirkuitua…

**JULEN AZPITARTE**
Kazetaria



# SUSTRAIEN MATXINADA

## Gorka Hermosak eta Garikoitz Mendizabalek diskoa plazaratu dute elkarlanean




**SUSTRAIEN MATXINADA**
Gorka Hermosa & Garikoitz Mendizabal
ELKAR

Sorkuntza lanetan "betikoa" egin daiteke, eta hori ondo dago, gustuko duguna kalitatez eta duintasunez gauzatzen denean. Sorkuntza lanetan bide berriak ere urra daitezke, eta hori ere ondo dago, jaiotzak sarri izaten direlako unibertso berrien haziak. *Sustraien Matxinada* proiektua ildo berriak irekitzera abiatu da "betiko" musiko tresna bi, txistua eta akordeoia alegia, oinarri hartuta. Sustraiak ere ibiltariak izan daitezkeelako.

Erronka makala, **Gorka Hermosak** eta **Garikoitz Mendizabalek** proposatzen digutena. Musikari biek Hermosak konposatutako doinuak grabatu dituzte, **Carles Benavent** baxuarekin eta **Tino di Gerlado** bateria-jolearekin batera. Mendizabalek txistua jo du, ohi duen trebezia paregabeaz, txistua dela sinisteko ere lanak emanez. Hermosak, jakina, akordeoia astindu du berak dakien bezala, pasioz eta maisutasunez, giro berezia sortzeko. Horiez gain, izen handi bi gehiago aitatu behar ditugu: **Ara Malikian** biolin-jolea eta **Carlos Nuñez** gaitaria. Biak proiektuan murgildu dira, bakoitzak bina kanturi erantsiz bere musika jarioa.

Baina erronka ez da musika tresna eta jotzaile bikainen elkarlanera mugatzen. Hermosak sortutako doinuek itsaso ezezagunean nabigatzeari ekin diote, non euskal musika tradizionalaren urak, jazz, musika klasiko eta beste estilo, erritmo eta melodia batzuen uhinekin nahasi diren, emaitza harrigarria lortu arte.

Carles Benavent eta Tino di Geraldo **Paco de Lucía** gitarra-jolearekin eta **Camarón de la Isla**rekin grabatuta daude. Hain zuzen, flamenkoaren norabidea aldatu zuten diskoetan parte hartu zuten. Beste horrenbeste lortuko ote du euskal musika tradizionalarekin *Sustraien Matxinadak*?

---




**ERRESIÑULA KANTARI**
Jean Mixel Bedaxagar
ELKAR

# ERRESIÑULA KANTARI

## Jean Mixel Bedaxagarrek disko berria ondu du

Bere ttipian, Zuberoak Euskal Herria osoa aho bete hortz uzteko moduko kultur produkzioa dauka. Eta herrialdeko sortzaileen artean **Jean Mixel Bedaxagar** izan daiteke emankorrenetako bat. Hamaika saltsatan sartuta ibiltzen da Urdiñarbeko musikaria eta, lantzean behin, disko batekin saritzen gaitu. Oraingo honetan, *Erresiñula kantari* dakar, belarriak kilikatuko dizkiguten hamalau kantu eder.

Bedaxagarren apustua tradizioari eustea izan da, baina jakinik garai berrietako doinuek ere bere ekarpena egin behar dutela, euskarak eta euskal kulturak iraungo badute. Zuberoako kantutegi oparotik hasita, Bedaxagarrek berak konposatutako doinuetara, *Erresiñula kantari* ekialdeko herrialdeko ahaireak eta kantatzeko erak ekartzen dizkigu, izan garena eta izango garenaren arteko zubiarena egin nahiz, garena izateari utzi gabe.

*Akitaniako Alienor* pastoraleko doinuak (2014), **Etxahun Iruri** eta **Etxahun Barkoxe**ren konposizioak, kantu herrikoiak, **Xalbador**ren bertsoak... Horiek dira diskoaren osagai nagusiak. Musika tresna tradizionalen abaroan isurtzen dira kantuok (txirula, ttunttuna, xirolarrua...), baina baita *a capella* ere, Zuberoako eran.

*Erresiñula kantari*n lagundu dutenen artean, aipamen berezia merezi dute **Errege Beldak** eta **Juan Mari Beltranek**. Biek ekarpen handia egin diote, diskoaren prestakuntzan aritu baitira. Gainera, Errege Beldak, akordeoia jo ez ezik, ahotsetan parte hartu du. Beltranek, berriz, musika tresna andana jo du, txirula eta xirolarrua besteak beste.

**Jean Mixel Bedaxagarrek** 1983an plazaratu zuen bere lehenengo diskoa (*Xiberoa*, Elkar), eta harrez gero garbi dauka bidea: "Atzinagokoek egin düen bezala, kantatzez, gure memoria kolektiboa eta eüskara hazten dütügu. Erran genezake gure betiko kantagintza, bertsolaritza eta gaurko musikak direla euskararen bigeren biria". Izan ere, helburua baita "segidaren katea gure ondokoer igaraitea, agian behin ere etenen ez delakoan". Hala bedi!



# MANU LÓPEZ GASENI



ARGAZKIA: PAMIELA-KALANDRAKA

**Pamiela eta Kalandraka argitaletxeek Eric Carleren obra berreskuratu dute, XX. mendeko ilustratzaile nabarmenetarikoa. Bereak dira haur literaturaren klasikoetako batzuk. Manu López Gaseni itzultzaileak ekarri ditu euskarara.**

**Nor zen Eric Carle?**
Artista estatubatuar bat zen, duela bi urte zendu zena 91 urterekin. Laster konturatu zen albumgintzarako egina zegoela, eta bide horretatik 70 albumetik gora plazaratu zituen eta izugarrizko arrakasta izan zuen.

**Behin eta berriz errepikatzen dira bere lanean irudi koloretsuak, naturarekiko maitasuna eta ideia argi eta garbiak. Zerk bereiztu du bere lana?**
Animalien bidez istorioak kontatzea ez da atzo goizeko asmakizuna, eta tradizioak ederki egiten du bere lana: horrek oso ondo funtzionatzen du beti. Carlek ere horri heldu dio bere istorio asko kontatzeko orduan. Antza du, horretan, katalogoko beste egile handi batzuekin, hala nola Browne edo Lionnirekin.

***Armiarma oso lanpetuta dago* da itzuli duzun Carleren azken album ilustratua. Zer topatuko du irakurleak album honetan?**
Armiarma baserri bateko hesira iristen da haizeak bultzatuta, eta han hasi da amarauna ehuntzen. Baserriko animalia asko hurbiltzen zaizkio, banan-banan, baserriko jarduerak proposatzera, baina armiarma oso lanpetuta dago eta ez die kasurik egiten, harik eta, azkenean, sorpresa bat etorri arte.

**Aurki *Burutik behatzetaraino* kaleratuko da. Nor da protagonista?**
*Burutik behatzetaraino* aurten argitaratuko den Carleren bigarren albuma da, bai, baina gehiago etorriko dira: *Hartz arre* eta *Gose biziko beldarra*. *Burutik behatzetaraino* horretan gorputz atalak aletuz joaten dira, eta zenbait animaliak erakusten diete beste hainbeste umeri atal bakoitzak zertarako balio duen. Orduan hor agertzen dira pinguinoa, bufaloa, jirafa, tximinoa, foka, gorila, krokodiloa… oinetako behatzetaraino iritsi arte. Errepikan oinarritutako albuma da, Carlek gustuko zuen baliabide bat.

> *“Eric Carle albumgintzarako egina zegoen. 70 albumetik gora plazaratu zituen eta izugarrizko arrakasta izan zuen”*

**Eric Carleren liburu gehiago itzuliko dituzu?**
Aurretik, *Zaldi urdin bat margotu zuen artista* euskaratu nuen, eta orain, beste lau batera. Zorte handia da hori itzultzaile batentzat.

**Bere albumetako testuak zuzenak dira. Ulermena intuizioan oinarritzen da. Horrek itzulpena erraztu ala zaildu egin dizu?**
Albumen itzulpenean adi egon behar da, testu gutxi izan arren beti egon ohi delako zaindu beharreko alderdiren bat: behin eta berriro errepikatzen den lelo bat, pertsonaien izenak, errimak…

**Album ilustratuak jolaserako tresna bat gehiago dira. Irudien handitasunaz gain hizkuntza dago. Hitz gutxi, baina mundu bat ezagutarazteko balio dutenak.**
Bai. Eta album egile handiek bikain baliatzen dute irudiaren eta hitzen arteko dialogoa, ez dena beti uste dugun bezain zuzena. Irudiak sortzeko maisutasunaz aparte, literatura tradizionalaren ezagutza sakona erakusten dute egileek: metaketaren bidez aurrera egitea, errepikak, hoskidetzak… haurrak, entzule direla edo irakurle direla, erakarri eta xarmatzeko baliabide ezin eraginkorragoak.




**ARMIARMA OSO LANPETUTA DAGO**
Eric Carle
PAMIELA - KALANDRAKA




**BURUTIK BEHATZETARA**
Eric Carle
PAMIELA - KALANDRAKA

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria

# Artxipelagoa

**Itsas maila izugarri igo den etorkizun hurbil batean, ordura arte neutrala izan den Artxipelagoaren eta Liga boteretsuaren artean gerra pizteko konplotean murgilduko dute Jare, ahalmen ezkutuak dituen neska gaztea. *Artxipelagoa* Europa distopiko batean girotutako abentura istorioa da, EiTB Podkasten audio-fikzio arrakastatsuan oinarritua. Podcastaren lehen denboraldiaren egokitzapen grafiko honek 80 orrialde ditu koloretan, eta publiko gazte/heldu bati zuzenduta dago.**




**ARTXIPIELAGOA**
Etxeberriak, Sanvi, Sedyas
**ELKAR**

2103, kontinente gehienak ur azpian daude. Berotze globalak eta poloen urtzearen azelerazio bortitzak itsas mailaren igoera bizkorra eragin dute, ustekabean iritsi diren Hiru Olatu Handien eran. Tsunami honek, herrialde osoak ez ezik, domino efektu azkar batean telekomunikazioak, nekazaritza edo energia ekoizpena deuseztatu ditu. Bizirik irautea lortu dutenek baliabide gutxiko eszenatoki berri eta zatikatu batean nabigatu behar dute. Garai ilunak, non Germaniar Konfederazioa edo Ipar Afrikako Liga bezalako potentzia berriak sortuko diren, ur azalean geratzen den Europa konkistatzeko prest.

Izan ere, itsas maila bat-batean igo ondoren, munduko ordena geopolitiko berri bat sortu da: antzinako potentzia handi gehienak (AEB, Txina, Erresuma Batua, Frantzia edo Errusia) urpean geratu dira, eta lehen hirugarren mailakoak ziren herrialdeek beren boterea handitzen ikusi dute beren kokapen geografikoari esker.

Europako testuinguruan, hori da Afrika Iparraldeko Ligaren kasua, Atlasean lur emankorreko eremu handiak baititu. Estepa Iberikoa konkistatu ondoren, bere domeinua iparralderantz zabaltzea bilatzen dute, Alpeetan gotortuta dagoen Germaniar Konfederazioarekin lehia bizian. Euskal Artxipelagoa neutrala izan da orain arte, inorekin etsaitu gabe, denekin salerosten saiatuz.

Jare, ezkutuko botereak dituen Euskal Artxipelagoko neska gaztea, oreka zaharrak hautsi eta aliantza berriak sortu nahian dabilen konplot arriskutsu batean murgilduko da ustekabean.

## ETXEBERRIATARRAK, SANVI ETA SEDYAS

Liburuko gidoia **Martin** eta **Xabier Etxeberria** anaiek idatzi dute. Uzta oparoko idazle eta gidoilariak, beraiek dira *Artxipelagoa* podcastaren gidoiaren egileak ere.

Marrazkilaria **Alex San Vicente *Sanvi*** da, eskarmentu handiko artista bizkaitarra. Euskal Herriko (*Xabiroi*) eta Frantziako (*L'inedit*, *Spirou*) aldizkarietako kolaboratzaile ohikoa, hainbat komiki liburu argitaratu ditu: *Udaberririk ankerrena* (Elkar, 2011 eta 2022) eta *Haur besoetakoa* saga *Xabiroi* aldizkarian, bi kasuetan **Unai Iturriaga**-rekin elkarlanean.

Kolorista **Sergio Roman *Sedyas*** barakaldotarra da. Ibilbide profesionala 2D animatzaile tradizional gisa hasi zuen, eta gaur egun ilustrazioa, komikia eta kolorea uztartzen ditu Frantziako eta Belgikako argitaletxe garrantzitsuenentzat.

## FIKZIOZKO LEHEN PODCASTA

*Artxipelagoa* (www.artxipelagoa.eus) euskaraz ekoitzi den fikziozko lehen podcasta izan da. Ulu Media audio ekoiztetxeak garatu du EiTB Podkastentzat. Webtoon formatuan argitaratua dago dagoeneko, EiTB LABen Komikiapp telefono mugikorretarako aplikazioaren baitan. Bideo-jokoa ere garatzen ari dira.

Besteak beste, **Aitziber Garmendia**, **Eneko Sagardoy**, **Anartz Zuazua**, **Iñaki Beraetxe** eta **Itziar Ituño** aktoreek parte hartu dute.

Hasiera-hasieratik arrakasta handia izan du publiko eta kritikaren aldetik, eta sari garrantzitsuak lortu ditu Euskal Herrian eta baita kanpoan ere. EiTBk hirugarren (eta azken) denboraldia estreinatuko du laster.



# Lina Plastilina

## Neurri eta forma guztiak hartzen dituen neskatoa

*Eskolako laborategian izandako istripu handi baten ondorioz, Katiren gorputza txiklezkoa edo gomazkoa balitz bezala, luzatzen, moldatzen, kiribiltzen eta era askotako formak eta neurriak hartzeko gauza da. Plastilinazkoa bihurtu zen plast-a-zi-di-ni-ma-rru-bi-ni-klei-ko... izeneko konposatu baten eraginez. Horrenbestean sortu zen Lina Plastlina.*

*Egun hartan, aldrebeskeria zuzendu nahian, Pauk hartu zuen Katiren argazkia, guraizeekin moztu zuen bere gorputz ingurua, etzanarazi zuen mahai gainean eta zanpatu zuen lau-lau eta fin-fin geratu arte, labera sartzeko prest dagoen pizza bat bezala. Azkenik, argazki moztu berria plastilinazko gorputzaren gainean jarri zuen, eta, hara, sartu zen datozen egunetan liburu-dendetan aurkituko duzun liburuan. Geroztik Lina Plastilina liburuz liburu dabil, abentura batetik irten eta bestean sartuz.*

*Liburu hauetako hizki, esaldi eta lerroen artean labainduz, estropezu eginez, haien gainetik jauzika eta ezkutaketan jolastuz, irakurleak abentura-bidaia liluragarriak egingo ditu eta hamaika pertsonaia harrigarri ezagutuko ditu.*

***Izaro Arroita**k eta **Joseba Larratxe**k, hurrenez hurren, idatzi eta ilustratu dute ipuin-sorta hau. Lehenengo liburuan, bildumaren abiapuntu diren bi istorio jaso dituzte:* Istripu handia *eta* Itsas-bidaia*. Liburuaren orrialdeetan barrena, zirkura joango da lehenengo eta abenturazko itsas-bidaia beldurgarri bati ekingo dio ondoren.*




**LINA PLASTILINA**
ISTRIPU HANDIA
Izaro Arroita · Josevisky
ELKAR





Izaro Arroita eta Joseba Larratxe "Josevisky" dira bilduma berriaren sortzaileak



# 12.elkar SKETCH

*Todas las personas aficionadas al dibujo ya pueden apuntar esta cita: 21 de octubre en Iruñea. Tras la gran acogida del año pasado, elkar sketch repite en la capital navarra para celebrar su duodécima edición.*

*Elkar sketch es un maratón de dibujo donde se fusionan la diversión y el arte y que reúne a cientos de artistas en la calle en un evento que ya se ha convertido en un clásico.*

Como se demostró el año pasado, en Iruñea hay una gran afición por todo lo relacionado con el mundo gráfico, por lo que no cabe duda de que será un gran día. En ediciones anteriores elkar sketch también se ha celebrado en las calles de Bilbo, Donostia y Gasteiz.

La cita tendrá lugar el **21 DE OCTUBRE**, con la misma dinámica de las ediciones precedentes: la organización provee de material (libreta y lápiz Moleskine), marca un recorrido con unos puntos a dibujar y proporciona un almuerzo. Será obligatorio presentar los dibujos en esta libreta compulsada, pero la técnica del dibujo será totalmente libre y por lo tanto, cada dibujante podrá llevar sus propios materiales de pintura. Habrá premios para las categorías de niños (hasta diez años), jóvenes (hasta dieciseis años) y adultos.

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.elkarsketch.eus








+2




**PANTXO ZEZENA**
Pello Añorga
DENONARTEAN

A zer nolako festak! Pantxo zezenak orro beldurgarriak atera eta istantean harrapatzen zuen jendea, eta zilipurdika botatzen adar handiekin, trapu zahar baten modura.




**HATZ TXIKI AURKAKOAK**
Claire Zucchelli-Romer
TTARTTALO

Zure hatz txikiak ez dira ados jartzen, aurkakoa egiten dute beti. Bata aurreratzen denean, atzean gelditzen da bestea. Aurkakoak lantzeko eta eskuetako motrizitatea pizteko liburua.

+2




**BLUEY. ABUELITAS**
Bluey
BEASCOA

Disfruta de las sorprendentes y divertidas aventuras de Bluey, la serie de animación más vista del mundo en Disney+ que ha cautivado a todas las familias. ¡Qué guay es ser una abuela!




**GABON ETA ONDO LO EGIN**
Esther Van der Berg
TTARTTALO

Marigorri gaueko lo-begiralea da. Zer egiten dute intsektu-hoteleko xomorroek lotara joan aurretik? Hortzak garbitzen dituzte? Ipuintxo bat irakurtzen dute? Hori ikustera doa Marigorri!




**MAMITIS**
Marta Prada
CARAMBUCO

A veces Martina debe separarse de su mamá, y cuando eso ocurre se siente muy triste: tanto, que su abuela dice que tiene mamitis. ¿Será algo grave? ¿Se podrá curar?

+6




**GEHITXO**
Olivier Tallec
TXALAPARTA

Ahula da zuhaitza, ongi zaindu behar da. Laguna bezala zaindu behar da. Neure zuhaitzak eta biok ongi zaintzen dugu elkar. Batzuetan, haren pinaburuetako bat ematen dit. Bat ez da sobera, baina, kasu, denak gehitxo izan daiteke.

+6




**HODEIEKIN DANTZAN**
Vanina Starkoff
PAMIELA-KALANDRAKA

Ametsik ezinezkoenak ere errealitate bihur daitezke. Haien atzetik gabiltzala, kulturaniztasunaz eta elkarbizitzaz ikasiko dugu, latinoamerikar folkloretik edaten duen album honetako kolore biziez inguraturik.




**LARRUMARRUAK. PRIMI ETA MAURIZIA**
Ixabel Agirresarobe
DENONARTEAN

Erromeria da Urkiolan. Primi Erostarbe abiatu da astoz. Erromerian panderoa jotzeko irrikaz dago. Bidean, adiskide on bat egin du: Maurizia Aldeiturriaga. Bera ere pandero-jolea da.




**UNICORNIA 6. UN BAILE HECHIZADO**
Ana Punset
MONTENA

Bailar es lo más divertido del mundo mundial. ¡Y la magia se une a la diversión cuando bailas en Unicornia! Aquí los escenarios son de arcoíris, las nubes y las flores cantan y ¡los unicornios bailan!




**LA PEOR PANDILLA DE LA HISTORIA**
Alicia Acosta
CARAMBUCO

Una divertida aventura de la peor pandilla de la historia donde conoceremos a sus personajes y descubriremos su secreto: una pelota mágica, de segunda mano, que los llevará de viaje en el tiempo.

+6




**UN AÑO EN NUESTRO JARDÍN**
Gerda Muller
ING

En este cuento, acompañaremos a Alba y a Tomás a lo largo de un año y observaremos cómo cambia su jardín en cada estación. Y también descubriremos las divertidas actividades que pueden hacer en cada momento.




**URDABURUTARRAK**
Anthony Browne
PAMIELA-KALANDRAKA

“Tira, laztana, gosari hori”, “Tira, ama, gosari hori”, esaten zioten senarrak eta seme-alabek. Harik eta Urdaburu anderea nazkatu eta alde egin zuen arte.




**NONDIK SORTZEN DA HAIZEA?**
Xabier Mendiguren
ELKAR

Txiki-txikia nintzenean, dena nekien nik. Banekien eguzkia nondik sortzen zen. Banekien masusta gozoenak non biltzen ziren. Banekien gure katu Xaxa non etzaten zen gozotan. Baina ez nekien nondik sortzen den haizea.




**IKUSEZIN**
Eloy Moreno
DENONARTEAN

Bilduma honetarako sortu ditugun istorioak ez dira soilik irakurlea entretenitzeko, horrez gainera nahi genuke haurrak ikas dezan, galde dezan, partaide senti dadin… eta, oroz gain, zurekin batera une berezi bat bizi dezan.

+7



### GORA GURE ALKATE JAKINTSUA!
Txabi Arnal / Edu Zelaieta
ELKAR

Hiritarrek arazo larri bat dute, eta horregatik jo dute alkatearengana. Aholkulari talde batekin bildu ondoren, arin eta prestu erantzun die alkateak; jakintsua izateaz gain, beti baitago hiriaren alde.

+9



### EDERTASUNAZ
Annie Bacon
TTARTTALO

"Ez naiz ederra". Ez da baieztapena, zalantza baizik. Kezka. Emakumeen bizitza zergatik zeharkatzen duen gogoetatu, eta pisu horren zenbaterainokoaz konturatzeko eta askatzeko proposamena da album ilustratu hau.

+10



### AMANDA BLACK. GALDUTAKO AMULETOA
Juan Gómez-Jurado / Bárbara Montes
DENONARTEAN

Amada Black sagako bigarren eleberria. Lord Thomasek familia-kutun bat itzultzeko eskatu die Blacktarrei, duela urte batzuk guztion onerako ostu zuten besokoa alegia. Baina amuletoa ez dago lapurren familiaren esku.



### LOS GAMERS PIRATAS 3. EL TRIDENTE MÁGICO DE POSEIDÓN
Roberto Santiago / Eduardo de los Santos
DESTINO

Pegaso y Delta viajan a Atenas para asistir al mayor festival de videojuegos de la historia: ¡el Mítica Games Show! Allí, conocerán la existencia del legendario Tridente de Poseidón, un arma con supuestos poderes mágicos.

+10



### NUBAZUEL NO CONOCE EL MAR
Mariela Santamaría
SERENDIPIA

Nubazuel quiere conocer el color del mar. Su familia le dice que no es seguro, pero ella tiene un secreto... lleva unas aletas mágicas que la hacen invisible.

+12



### JOAN, JOANA
Francisco Castro
ALBERDANIA

Ikastetxeko futbol txapelketarako, Joanak neska talde bat antolatu du, baina ikastetxeko zuzendaritzak mutiltzat du bera, Joanak neska sentitzen dela behin eta berriz errepikatu badu ere.



### HEARTSTOPPER 2. MI PERSONA FAVORITA (ED. ESP.)
Alice Oseman
CROSSBOOKS

El amor es sencillo. Enamorarse es complicado. ¡Continua la historia de amor de Nick y Charlie en la serie que ha conquistado a millones de corazones! Edición especial con material inédito.



### LA OTRA CARA DE LA PERFECCIÓN
Mariko Turk
PUCK

Alina Keeler estaba destinada a convertirse en bailarina profesional hasta que una terrible caída le destrozó la pierna. Tras un verano recuperándose, se ve obligada a volver a empezar en un instituto convencional.

+12



### ¿HAY FILOSOFÍA EN LA NEVERA?
@Filoadictos
MONTENA

¿Quién soy? ¿Qué hago aquí? ¿Qué es la realidad? ¿Soy libre? ¿Cuál es el sentido de la vida? ¿Cómo puedo comprender este mundo loco? Y, por cierto… ¿qué venía a buscar a la nevera? La filosofía como nunca te la han contado.



### HARRY POTTER ETA SORGIN-HARRIA
J.K. Rowling
ELKAR

Harry Potter umezurtz geratu da, eta bere osaba-izeba gogaikarriekin eta bere lehengusu Dudley kaikuarekin bizi da. Harry bakarrik eta triste sentitzen da, inork ez duelako maite etxe hartan.



### HARRY POTTER ETA SEKRETUEN GANBERA
J.K. Rowling
ELKAR

Harry Potter azti ausarta, Hogwartseko Magia eta Sorginkeria Eskolan lehenengo ikasturtea bukatu ondoren, bere osaba-izeba gogaikarrien etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain. Larri dago Harry gaixoa...



### NESKA JAIOTZEA
Alice Dussutour
TTARTTALO

Jaioterriaren arabera, neska jaiotzeak ez ditu aukera berak eskaintzen… Ezagutu munduko bost neska gazteren bizitzak: Kaneila, Enara, Mahnoosh, Makena eta Luisa. Egunero bidegabekeriak eta indarkeriak jasaten dituzte.



# NOBEDADEAK

## *liburuak*




### ARTADI
Toti Martinez de Lezea
EREIN

Elisa, Aurora, Manuela, Isabel, familia bereko lau belaunalditako emakumeak, XIX. mendearen erdialdetik XX. mendearen erdialdera bizitako-ak, etsai duten gizarte batean bizi eta borroka-tzen dira.




### HILDAKO HAURRA
Gotzon Barandiaran
SUSA

Bi antzezlan dakartza Hildako haurra liburuak. Testu batean zein bestean, mundua den testuin-guru zabal horretan gertatzen direnak nola jaso da trabesa, norbere ezintasunetik nola eragin hitzaren bitartez.




### OIHENARTEA EZ HUNKI
Bea Salaberri
ELKAR

Oihenartea etxaldean du bizitokia eta lana Peiok. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bizitzea, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da.




### GABRIEL ARESTI SARIAK
Batzuk
EREIN

Bilboko Udalak deitutako Gabriel Aresti ipuin lehiaketa 2021. eta 2022. urteetan irabazi zuten kontakizunak biltzen ditu. Karmele Mitxelena, Nerea Arruti, Juan Mari Atutxa, Saioa Alkaiza, Aritz Mutiozabal eta Maite Arrutiren lanak dira.




### INOZENTZIAREN AROA
Edith Wharton
LA MAR DE FÁCIL

Newland Archer XIX. mende amaierako New Yorkeko goi-gizartekoa da, eta zoriontsu da May Welland duelako emaztegai. Halere, egun batean, Ellen Olenska kondesa, Mayren lehen-gusina, Europatik itzultzen da.



### BELARRIKO KILKERRA
Uxue Alberdi
ELKAR

Ahoz kontatu eta belarriz jasotako testuak dira. Norbaitek apartatu ditu eguneroko bizitzako gertakari-sailetik eta gorde ditu memoriaren kaiolatxoan. Akorduan hartu zituenak ez zituen beretzat gorde, ordea.




### MOBY DICK
Herman Melville
BALEA ZURIA

Herman Melvilleren lan ezaguna itzuli du Juan Garziak, urte luzeetako lanaren ondoren. Lite-raturaren klasiko handienetako bat, nobelarik enblematikoenetakoa.




### LEHOI OGROA 2. HIRU LEHOIAK
Bruno Bessadi
HARRIET

Kgosi erregeak oroimena berreskuratu du, eta orain badaki zeri egin behar dion aurre.




### ÑO!
Batzuk
ARGIA

Emakume bertsolarien esperientziatik eta es-perientziez hitz egin duen komiki-liburua ondu dute Miren Artetxek, Maitane Gartziandiak eta Eli Pagolak.




### HIRU ETXE SANTA MONIKAN
Iñaket / Mikel Begoña
HARRIET

Euskaraz sortutako komikien loraldi betean, Iña-ketek eta Mikel Begoñak, berriz ere elkarlanean, Kalifornia aldera eraman gaituzte lan bikain ho-nekin. Gidoilariarentzat zaila da fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak zehaztea.




### DINOSAURS SANCTUARY 2
Itaru Kinoshita
HARRIET

Zatoz gure Dinosauroen Santutegira, munduko zoologikorik zoragarriena, non ez dagoen aska-ria izateko arriskurik. Kabe bildumak gero eta ti-tulu gehiago kaleratzen ari da, manga euskaraz lelopean.




### URA JATEN
Maddi Goikoetxea
SUSA

Maddi Goikoetxeak honako hipotesia jarri du liburu honen oinarrian: "Antzerkiak prestigio sozialik ez duen artean, prekaritatera kondena-tuta dago". Esaldiaren argiak eta itzalak arakatu nahian, elkarrizketa sakonak egin ditu antzerki-lariekin.




### MAITE IDIRIN, HERRIGINTZAN KANTUZ
Jokin Apalategi / Paulo Iztueta
UEU

Maite Idirin da liburu honen protagonista, eta 1968an kokatuko genuke haren ibilbide artisti-koaren hasiera, urte horretan hasi baitzen kan-tatzen, Zeberion. Baina, 1969an, Parisera joan behar izan zuen, ihesi.




### MEDITAZIOAK
John Donne
BALEA ZURIA

Hil aurretik, Patxi Ezkiagak John Donne (1572-1631) poeta metafisikoaren Devotions upon Emergent Occasions lanaren *Meditazioak* atala itzuli zuen. Irudimenaren, sentsualitatearen, erudizioaren eta ahapaldi forma perfektuen poeta izan zen Donne.




**BERTOLT BRECHT**
Bertolt Brecht
SUSA-MPK

Gaur inor gutxik ezetsiko du XX. mendeko poemagile aleman eta europar nabarmenetako bat izan zela Bertolt Brecht, baita autore oparoa ere: haren 2.000tik gora olerkien lagina dakarkigu Irati Majuelok bilduma honetara.




**BERTSOAK ETA BERTSOLARIAK IRUNEN XIX. MENDEAN**
Joxan Elosegi / Aitor Errazkin
ALBERDANIA

Ez dira horren maiz bertso ondareaz arduraturiko lanak liburu gisa aurkezten, eta horra, bada, *Bertsoak eta bertsolariak Irunen XIX. mendean* izenekoa, bertsozaleak huts egin beharko ez lukeen lana, areago Irungoa edo ondoko leku batekoa bada.




**ALFERRIKAKOAREN BALIOA**
Nuccio Ordine
PAMIELA

Doakoa hiltzen uzten badugu, uko egiten badiogu alferrikakoaren sormen-indarrari, etekinaren bila joatera bultzatzen gaituen sirena-kantu hilgarria besterik entzuten ez badugu, eritu eta erotuko den gizatalde bat sortuko dugu.




**ROTE ZORA. HIRI-GERRILLA FEMINISTA PIZTIAREN BIHOTZEAN (1974-1995)**
Rote Zora
KATAKRAK

Rote Zora Mendebaldeko Alemanian osatutako emakume feminista autonomoen hiri-gerrilla bat izan zen. Segurtasun-indarren azpiegituren, enpresen, epaitegien eta lantegien kontrako 45 eraso egin zituzten.




**BARBARO IRAUN BEHARRAZ**
Louisa Yousfi
TXALAPARTA

Sumatzen dut hainbeste gauza ditudala esateko non hobe baita ez nadin oso ikasia izan. Barbarotasun gisako bat gorde behar dut, barbaro iraun behar dut.




**HARAGIZKO ERREFORMAK**
Mari Luz Esteban
PAMIELA

Hirugarren bilduma honetan, Mari Luz Estebanek genealogia geografikoetan, kulturaletan, sozialetan zein linguistikoetan arakatu du, askotariko adarkatzeez osaturiko genealogia afektibo eta politikoak poetikoki gorpuzteko.




**GAMAZADA. BATASUNAREN INDARRA**
Xabier Irujo Amezaga
TXALAPARTA

Irujok oroimen kolektiboko ahalegin bat dakar, beharrezko kontakizuna, gaurkotasun osokoa, herri duintasunaren eta askatasun gogoaren adierazle: Nafarroan zabaldu zen Gamazada herri errebolta (1893-1894).




**MODERNIAREN HASTAPENAK EUSKAL HERRIAN**
Batzuk
JAKIN - EHU

Bost mende igaro dira Juan Sebastian Elkanok gidatutako Victoria ontziak lehen mundu bira burutu zuenetik. Oroipen urte hauek gure iragana hobeto ezagutu eta gertakari horrek egungo gure munduarekin eta gizartearekin duen lotura aztertzeko baliatu nahi izan ditugu.



**ERLETXO, ERLETXO, NAGUSIA HIL DA**
Martxel Aizpurua Agirre
UEU

Lehengoan, etxeko hainbat paper begiratzean, konturatu nintzen nire 35 urteko ibilbidean pilaturik nituela erlezaintzako hainbat dokumentu, fotokopia, liburu eta abar. Urte horietan jasotakoa dator liburu honetan.




**MIREN AZKARATERI ESKER ONEZ**
Batzuk
EHU

Miren Azkarate hizkuntzalari eta euskaltzainari eskainitako artikuluak, beti ere euskararen gaineko jakintza eta ezagutza zabaltzeko arlo filologiko eta historikotik abiatuta.




**EUSKARA ORAIN. ERAGINKORTASUNA HELBURU**
Batzuk
ALBERDANIA

Liburuan lau egile bildu ditugu: Xabier Amuriza, Iñigo Lamarca, Haitao Liu eta Jesus Rubio. Gutziek ideia pertsonalak badituzte ere, antzeko ideiak aldarrikatu dituzte: adibidez, aditzak sinplifikatzeko eta sintaxi eraginkorragoa garatzeko premia.



**DONOSTIA, EUSKARA ETA EUROPAKO HIZKUNTZAK PERSPEKTIBA SOZIOHISTORIKOAN**
Batzuk
EUSKALTZAINDIA

Donostiako bilakaera soziolinguistiko-historikoa egiteko asmoarekin hainbat lan aurkezten da liburu honetan.

erriola
kilometroak
2023 ORERETA-ERRENTERIA

hotsein!
Nafarroa Oinez 2023 · Etxarri Aranatz

# NOVEDADES
## *libros*




### LA BABILONIA, 1580
Susana Martín Gijón
ALFAGUARA

En el esplendor de Sevilla acecha el terror. Elogiada por Carmen Mola y Alicia Giménez Bartlett, vuelve Susana Martín Gijón, renovando el género negro con un thriller monumental y un secreto que pudo cambiar la historia.




### NO TE VERÉ MORIR
Antonio Muñoz Molina
SEIX BARRAL

Durante su juventud, Gabriel Aristu y Adriana Zuber protagonizaron una apasionada historia de amor que parecía destinada a durar para siempre. El futuro, sin embargo, tenía otros planes para ellos.




### EL GUATEQUE DE LOS MUERTOS
Colin Cotterill
AMOK

Siri Paiboun, el médico forense de la República Democrática Popular Lao, será enviado al norte, donde la aparición de un brazo momificado junto a la mansión del presidente ha provocado un comprensible revuelo.



### LAS GARRAS DEL ÁGUILA
Karin Smirnoff
DESTINO

Mientras existan hombres que no amen a las mujeres… Lisbeth Salander volverá. La nueva novela de la serie Millennium, llega de la mano de Karin Smirnoff, autora revelación de la narrativa sueca.




### LA VETERINARIA. GRANDES SUEÑOS
Sarah Lark
B EDICIONES

Corre el año 1912 y, para poder trabajar como veterinaria, Nellie se casa con su amigo Phipps, quien va a heredar la consulta de su padre. Aunque no está enamorada de él, los une desde la infancia una estrecha amistad.




### TE DI LOS OJOS Y MIRASTE LAS TINIEBLAS
Irene Solà
ANAGRAMA

Escondida entre riscos, en algún remoto lugar transitado por cazadores de lobos, bandoleros, carlistas, hechiceras, maquis, pilotos de rally, fantasmas, bestias y demonios, la masía Clavell se agarra al suelo como una garrapata.




### EL LATIDO DE LOS TRES BURGOS
José Miguel Albizu
EDICIONES EUNATE

Pamplona, 1384. La Navarrería, el burgo de San Cernin y la población de San Nicolás se enfrentan en una guerra que dura casi dos siglos, pese a que algunos de sus mandatarios trabajan por la unificación en una sola ciudad.




### LA CHICA QUE JUGABA AL AJEDREZ EN AUSCHWITZ
Gabriela Saab
NEWTON COMPTON

Maria Florkowska, además de una excelente jugadora de ajedrez, es también miembro de la Resistencia polaca en la Varsovia ocupada por los nazis. Arrestada y deportada a Auschwitz, la joven se resigna a su destino.




### OTABERRA
Elisa Victoria
BLACKIE BOOKS

Algo pasó en 1989. Renata vuelve a ese año una y otra vez. El presente para ella no existe. El tiempo quedó detenido en Otaberra. La esperadísima nueva novela de la autora de *Voz de vieja* y *El evangelio*.




### LOS VIRTUOSOS
Yasmina Khadra
ALIANZA

Argelia, 1914. A Yacín, un joven de veinte años, le proponen ir a Francia a luchar contra los alemanes. A cambio le prometen fortuna y comodidades. Cuatro años después, vuelve y empieza una nueva lucha.




### ALLENDE Y EL MUSEO DEL SUICIDIO
Ariel Dorfman
GALAXIA GUTENBERG

Ariel necesitaba dinero, y Joseph Hortha lo tenía en exceso. Unidos por la gratitud hacia Salvador Allende y la necesidad de saber si fue asesinado o se suicidó, los dos hombres se embarcan en una pesquisa.




### PRUEBAS DE HECHICERÍA
Elise Kova
UMBRIEL

*Pruebas de hechicería* es el primer libro de una nueva serie de fantasía épica, ideal para los lectores que disfrutan de las historias con hechiceros, romances, aventuras en tierras lejanas y magia elemental.




### EL AMOR DERRIBA MUROS
Tessa Bailey
TITANIA

Rosie y Dominic Vega forman la pareja perfecta: se conocen desde jóvenes, son grandes amigos y están locamente enamorados. O al menos, solían estarlo. Ahora, Rosie tiene suerte si consigue que Dominic le dedique un gruñido.




### UN AVIÓN SIN ELLA
Bussi / Duval / Pinheiro
NORMA

La noche del 23 de diciembre de 1980, un avión se estrella en el macizo del Jura. Una niña de tres meses sobrevive milagrosamente a la catástrofe, pero su identidad queda en el aire porque había dos bebés a bordo.




**TIEMPOS PARA LA LYRICA**
Jon Arretxe
EREIN

Tras su paso por París y Madrid, Touré está de vuelta en la Pequeña África de Bilbao. Le preocupa Sa Kené, a quien, en su último encuentro, apreció marcas y moratones en su cuerpo.




**COMADRES**
Goiatz Labandibar
ALBERDANIA

Las veintiún narraciones que componen este libro hablan, de un modo u otro, de madres. Pero también de las intenciones y pulsiones de ser o no ser madre. O de las múltiples y contradictorias maneras de ser o no ser madre.




**EL DIARIO DE MOLA**
Pello Guerra
PAMIELA

Junio de 1937. Mola muere al estrellarse el avión en el que viajaba. Treinta minutos después de conocerse la noticia, desaparecen sus diarios. Ficción y realidad se entremezclan para recrear una etapa que aún marca el presente.




**EL REGRESO DE SATURNO**
Leyre Arrue
ALBERDANIA

Los quince relatos de este volumen (dos de los cuales han obtenido reconocimientos en prestigiosos certámenes de narrativa breve) visitan los territorios del primer encuentro, del reencuentro y de la despedida.




**LA CRISIS DE LA NARRACIÓN**
Byung-Chul Han
HERDER

Las narraciones crean lazos. De este modo, fundan comunidades y nos salvan de la contingencia. Sin embargo, hoy, cuando todo se ha vuelto arbitrario y azaroso, el *storytelling* se ha convertido en un arma comercial.



**¡QUÉ PAÍS, MIKELARENA!**
Iñaki Anasagasti
TXALAPARTA

Iñaki Anasagasti es de sobra conocido como político. En este libro sorprende por su propuesta de un consenso mínimo entre todos los vascos que desean una Euskal Herria soberana frente al montaje español.



**ELON MUNSK**
Walter Isaacson
DEBATE

Del autor de *Steve Jobs* y otras grandes biografías, esta es la historia asombrosamente íntima del innovador más fascinante y polémico del mundo.




**CAPITALISMO. COMPETENCIA, CONFLICTO Y CRISIS**
Anwar Shaikh
FCE

El economista heterodoxo Anwar Shaikh ofrece una crítica diferente al sistema capitalista. Principalmente, la argumentación gira en torno a la inexistencia de una necesidad real de una incesable producción industrial.



**SETAS PARA SANAR, ALUCINAR Y DISFRUTAR MANUAL DE USO**
Juanma Oliveira
SUA EDIZIOAK

Este libro es una tentadora, rigurosa y, a ratos, divertida invitación a introducirnos en el mundo de las setas con seguridad y sacar partido a la tradición micológica vasca, siempre desde el respeto a la naturaleza y a nuestra salud.




**ACTIVA TU ENERGÍA**
Simon Alexander Ong
RBA

El galardonado *coach* Simon Ong presenta el arte y la ciencia de la gestión de la energía personal. Ong te enseña a reconocer tu estado de mayor energía para que puedas trabajar sin agotarte y alcanzar tus objetivos.




**SENTIR**
Miriam Tirado
GRIJALBO/DARGAUD

La mayoría no hemos recibido ni educación emocional, ni herramientas para saber qué hacer con lo que sentimos. Aun así, nos toca acompañar las emociones de nuestros familiares o amigos. ¿Cómo lo podemos conseguir?




**CEREBRO**
José Viosca
NATIONAL GEOGRAPHIC

Este libro aborda el reto de cartografiar el cerebro con el objetivo de desentrañar los mecanismos biológicos que subyacen en la actividad mental humana.



Uxue Alberdi
Begoña Durruty
BELARRIKO KILKERRA
Ahozkoak idatzira ekarritako istorioak; ahotsa begira; belarrikoa paperera.
elkar
www.elkarargitaletxea.eus


# NOBEDADEAK

## *musika*




### GAUTEGIA
Txuma Murugarren
GAZTELUPEKO HOTSAK

DESKONTUA %10

Nick Caveren *Nocturama* (2003) diskoaren zenbait abestien moldatuz osatu du Txuma Murugarrenek bere zortzigarren lana. Jatorrizko diskoak zuen lirikotasunari eta jatorrizko letretako errima estuari heldu nahi izan die.




### THE STANDARDS OF MY CHILDHOOD
Olatz García-Ergüin Quartet
ERRABAL JAZZ

DESKONTUA %10

El proyecto liderado por Olatz García-Ergüín no solo pone de manifiesto un evidente ejercicio de coherencia artística, sino que supone toda una declaración de intenciones a la hora de abordar el real book de la música jazz norteamericana desde un punto de vista genuino y muy personal.




### ERROMERIAK
Kepa Junkera Urraza
INFERNUKO AUSPOA

DESKONTUA %10

Iktusa sufritu zuenetik, lehenengo diskoa kaleratu du Kepa Junkerak. Orotara, hamabost kantu dira, emakume panderojoleen omenez. Euskal Herria, Kantabria, Asturias, Galizia, Leon, Valladolid eta Portugalgo 40 emakume panderojole bildu ditu.



### IN TIMES NEW ROMAN...
Queens of the Stone Age
POPSTOCK

El octavo album de la banda estadounidense, compuesto de diez temas, marca la conclusión de la trilogía que el grupo comenzó en 2013 con *...Like Clockwork* y siguió con *Villains*.



### ORQUESTA NANCY
Nancys Rubias
WARNER

Nancys Rubias presentan su nuevo álbum, repleto de versiones de canciones que han influido en sus vidas, desde Blondie, a La Húngara, pasando por Loquillo, Luis Miguel y Los Romeos, entre otros.



### MINGUS MOODS
Iosu Izaguirre Quartet
ERRABAL JAZZ

DESKONTUA %10

El músico de jazz Charles Mingus inspira este estupendo disco del contrabajista Iosu Izaguirre. Autor de las ocho piezas del disco, Izaguirre es un músico de dilatada experiencia y sabiduría, y ¿por qué no? nuestro propio "pequeño Mingus".




### GRETA GARBO
Bunbury
WARNER

El músico Enrique Bunbury vuelve con un album de estudio que recoge diez temas. En bastantes de ellos aparece una mezcla de inquietud y entusiasmo que el autor relaciona con lo que llama síndrome Greta Garbo.




### BASA AHAIDE
Haratago
EZKANDRAI

DESKONTUA %10

Haratagok Basa Ahaideen –euskal mendietako artzainen esamolde bat– indarra agerrarazi du. Ohiz bakarka eta *a capella* kantatuak, Julen Achiaryk, Turkiako eta Azerbaijaneko musikari batzuekin egindako elkarretaratzez inspiraturik, haratago eramaiten ditu.

## DVD-AK




### IRATI
Paul Urkijo
DIVISA RED

Euskarazko film arrakastatsua dvd formatuan iritsi berri da. Euskal mitologiaren irakurketa bikain honek zinema aretoetako ikusleak liluratu ditu.




### AVATAR, EL SENTIDO DEL AGUA
James Cameron
DIVISA RED

James Cameron regresa al mundo de Pandora en esta emocionante película de aventura y acción, ambientada más de una década después de los acontecimientos de la primera entrega.

PEQUEÑOS LIBROS,
GRANDES
★ HÁBITOS ★

@Alienta
@Alienta.Editorial
@Alienta_Editorial

alienta EDITORIAL






+6




## MYSTERIUM KIDS: EL TESORO DEL CAPITÁN BU

LIBELLUD

Juego de mesa para vivir una fantástica aventura en una vieja mansión abandonada donde se oculta un fabuloso tesoro...

+6




## SWITCH IT!

FLEXIQ

Karta jolas honetan karta gehien pilatzen duenak irabaziko du. Pertzepzio eta erreakzio mekanikak jorratzen ditu.

+7




## MISIÓN SUBACUÁTICA

HABA

Los jugadores deberán coger cartas de la pila con el objetivo de reunir el número de criaturas submarinas indicadas en los dados.

+8




## PRÓXIMA ESTACIÓN: LONDRES

MEBO

Londreseko metroa berrantolatu behar dute eta horretarako zure laguntza behar dute. Metro lerro bat marraztu behar duzu geltokiak lotuz ahalik eta leku gehienetara heltzeko.

+8




## OCÉANOS DE PAPEL

TRANJIS GAMES

*Océanos de Papel* es un juego con mecánica de set collection en el que encontraras un mazo de cartas con fotografías únicas de hermosas creaciones en papiroflexia.

+8




## FANTASMA BLITZ DADOS

DEVIR

Fantasma Blitz klasikoaren bertsio berri eta dibertigarria. Ikusmen zolia eta bizkortasuna erakutsi beharko duzu lehenengoa izateko mahaiaren erdiko figura egokia hartzen.

+8




## THAT'S NOT A HAT

RAVENSBURGER

Juego de cartas que mezcla la memoria y el faroleo. ¿Crees que tu capacidad de retentiva es digna de alabanza? ¿Estás dispuesto a demostrarlo?





IKASTURTE BERRIRAKO
PREST!
elkar
%10eko Deskontua
elkar LIBURU-DENDAN ZURE TESTULIBURUA ERRESERBATZEAN PAPERTEGIAN %10eko DESKONTUA IZANGO DUZU
¡RESERVA LOS LIBROS DE TEXTO EN TU LIBRERÍA elkar Y OBTENDRÁS UN 10% DE DESCUENTO EN PAPELERÍA
HIZKUNTZA
MATEMATIKA
FILOSOFIA
HISTORIA
elkar
www.elkar.eus